










aRaRteko

Herriaren Defendatzailea *Defensoría del Pueblo*

14_{zk.}

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena. 2011ko laburpena





AURKIBIDEA

AURKEZPENA	05
DATU OROKORRAK	06
PERTSONEN ESKUBIDEAK	08
JARDUERAK	14
EZHOIZKO TXOSTENAK	20
GOMENDIO OROKORRAK	22
AZTERKETA	29
HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA	30
BESTELAKO JARDUERAK:	32
_ ARGITALPENAK	32
_ JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK	33
INFORMAZIO INTERESGARRIA	38







Itigo Lamarca - Arartekoa

AURKEZPENA

Ohore handia da niretzat orrialde hauetan Ararteko erakundeak 2011. urtean zehar aurrera eramán dituen **jarduerarik esanguratsuenen** laburpen bat egitea.

Gure eraginkortasunak agerian jartzen du Ararteko erakundera kexak eta kontsultak aurkeztera hurbiltzen diren pertsonen gudan jarritako konfiantza. Izan ere, hori ez litzateke posible izango Arartekoarekin etengabeen elkarren ondoan diharduten gizarte erakundeen lankidetzarik gabe. **Arartekoak burutzen duen eginkizunaren eragin positiboa** herri-administrazioekin ezarritako elkarrizketa argiaren eta konstruktiboaren emaitza da, araudian zein politika publikoetan aldaketak eraginez eta, azkenean, pertsonen bizitza hobetuz.

2012. urtean gure ahaleginari jarraitutasuna emango diogu kalitatezko zerbitzu publiko bat eskaintzeko. Urte honetarako **xede programatiko batzuk** honako hauek dira: zerbitzu-zorro bat ezartzea, kexa-espeditenteen izapidea eta kontsulta ahalik eta gehien arintzea eta **Haur eta Nerabeentzako Bulegoa Euskadin haurren eskubideen arloko erreferentziatzat jotzea.**

Kexen eta kontsulten kudeaketarekin eta politika publikoen azterketarekin batera, Ararteko erakundearen eginkizuna **giza eskubideen kultura** elikatzea da. 2011. urtea gogora ekartzen dugunean, oroituko dugu, zenbait hamarkada basatiren ostean, ETAk haren indarkeria armatua bertan behera uztea erabaki zuen urtea izan zela. Aipatu urtean krisi ekonomikoa intentsitate handiarekin nabarmendu zen eta pertsona eta kolektibo zaurkorrenentzako zama bereziki handia izan zen. Halaber, 2011. urtea **herritarrak mobilizatzeko modu berri baten berpizkundearen** lekuko izan da, Euskadi barruan eta Euskaditik kanpo, demokrazia, askatasun eta gizarte eskubide gehiago eskatzen zituena. Arartekoan benetan uste dugu konprometitutako herritarrak demokrazian zein gizarte kohesioan aurrera egiteko ezinbesteko osagaia direla eta krisi ekonomikoko garaietan hain zuzen ere, eskubide ekonomikoaren eta gizarte eskubideen gaurkotasanak esanahirik gorenena eskuratzen duela.



Iñigo Lamarca Iturbe

Arartekoa

DATU OROKORRAK

2011n, herritarrentzako zerbitzuarekin eta administrazioen kontrolarekin lotutako **8.252** jarduera zenbatu dira (telefono-kontsultak, bisitak, kexak, kontsultak eta ofiziozko jarduerak); 2010. urtean, ostera, **6.851** izan ziren, beraz, **%27**koigoera izan da arlo honetan.


Informazioa eta orientabidea eskatzeko egindako **1.616 telefono-kontsultari** erantzun diegu, eta **4.215 pertsona** hartu ditugu herritarrei arreta emateko ditugun hiru bulegoetan, sortu zaizkien arazoengatik inguruan informazioa eta aholkua eskatzera etorri direnak. Bisita guztietatik, **931k kexei eman diete bide**, hau da, **%23,24k**. Beraz, agerian geratu da aurretiaz lan garrantzitsua egiten dela zuzeneko arreta emateko bulegoetan; izan ere, ez dira onartzen arrazoi batengatik zein besteagatik Arartekoak ikertu ezingo dituen erreklamazioak. Gainera, Internet izan da erreklamazioak aurkezteko gehien erabilitako bidea.

2011. urtean, herritarrek guztira **2.347 erreklamazio** aurkeztu dituzte Arartekoan eta **ofiziozko 74 espediente** izapidetzen hasi gara.

Herritarren erreklamazioak modu nabarmenean handitzeko (%26) arrazoia da, batez ere, **gizarte arloko kontuen** gaineko eskaerak asko ugaritu direla: gizartearen baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko gizarte-babeserako sistema, hezkuntza, etxebizitza eta abar. Zehazki, aipaturiko hiru arloetan, kexak **%320**, **%38** eta **%54** ugaritu dira, hurrenez hurren.

Herritarrei laguntzarekin lotutako Ararteko erakundearen jarduerak

Telefono bidezko kontsultak	1616
Bisitak	4215
Kexak	2347
Ofiziozko jarduerak	74
Guztira	8252



2011. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokienez, aztertutako kexen **%34,76**etan okerreko jardueraren bat antzeman da. Ukitutako administrazioak erreklamazio eragin zuten jarduerak zuzendu ditu okerreko jardueraren bat zegoela antzemandako kasuen **%83,31n** eta kasu gehienetan ez da beharrezkoa izan gomendio formal bat egitea administrazioak Arartekoaren planteamendua onar zezan.


Administrazio bakoitzari eragiten dioten **kexen proportzioaren** gaineko datuen arabera, joan den urtean

Kexa bilakaturako bisitak



■ Bilbao 340
■ Vitoria-Gasteiz 416
■ Donostia-San Sebastián 175
Guztira 931

Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua bulegoetan



ararteko erakundearen jarduera, zenbakitan


ez bezala, 2011n Eusko Jaurlaritzaren aurka zuzendu dira erreklamazio gehienak (%36,94), udalen jarduerari buruzkoak gutxitu diren bitartean (%33,99).

Edozelan ere, espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak **ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik**, bai, ordea, kexak haren jardueraren bat hizpide izan duela.


Eskaintzen dugun **zerbitzua hobetze aldera**, kexa-espediente baten izapidea amaitzen dugunean,

erreklamatzaileari galdera-sorta bat bidaltzen diogu, nahi izanez gero eta izenik jarri gabe, emandako zerbitzuaren gainean duen iritzia berri edukitzeko aukera ematen diguten hainbat galdera erantzun ditzan. **Arartekoaren esku-hartzea** (alegia, erakutsitako interesa, laguntza emateko jarrera, egindako gestioak, etab.), oro har, nola baloratuko duten galderari erantzunez %80,45ek esan du balorazioa **“oso edo nahiko positiboa”** dela, baita arazoa ebatzi gabe geratu zaien edo aldeko emaitza lortu ez duten pertsonen artean ere.


Jasotako kexen kopuruaren bilakaera (2005-2011)




Zuzenean bideratutako kexa banaketa, eragindako administrazioen arabera



Oro har, zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?



Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



Hurrengo orrialdeetan saiatuko gara erakusten noraino errespetatzen dituzten herritarren eskubideak Arartekoaren jarduera-eremuko administrazio publikoek, hau da, EAeko Administrazio Orokorrak, lurralde historikoetako Administrazioak eta Toki Administrazioak. Gizarte eskubideen inguruko kexen gehikuntza ikusi dugu 2011n, krisi ekonomikoaren eta gastu publikoak murrizteko politiken ondorioz.

Gaur egungo testuinguru ekonomikoan nabarmen handitu da **gizarte laguntza ekonomikoak eten edo iraungi** zaizkien pertsonen kopurua. Batez ere esan behar da jende askok galdu duela diru sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria, eta laguntza horiek gizarte kohesiorako funtsezko faktoreak dira. Gizartetik lehendik baztertuta zeuden pertsonen gainera, handitu egin da baztertzeko arriskua duten pertsonen kopurua, kasurik gehienetan lanpostua galtzearen ondorioz.

Egoera ekonomikoak eraginda, halaber, gehiago izan dira etxebizitza babestua eskatu duten herritarrak, eta kasu batzuetan oso latza izan da haien familia egoera. Familia askok beherakada handia izan dute euren diru sarreretan, lanik gabe geratzearen ondorioz gehienetan, eta ezin izan diote aurre egin sinatutako hipoteka maileguren ordainketari. Euskal Autonomia Erkidegoan **etxebizitza utzarazteko prozesuek batez beste zazpi familia kolpatzen dituzte egunean.**

Eta ez dugu ahaztu behar, krisi garai hauetan, murrizketa publikoak bereziki emakumeen kalterako direla, emakumeen kargu daudela mendekotasuna duten pertsona gehienak, eta horrela zenbait kasutan areagotu egiten dela **“pobreziaren feminizazioa”** deitu dena.

“Arartekoaren jarduketa guztiek pertsonen duintasunaren eta balio demokratikoen babes zorrotza dute xede.”

Baina 2011. urteak oso albiste on bat ere ekarri digu eskubideen eta askatasunen arloan: ETAK **“indarkeriaren behin betiko amaiera”** iragarri du.

BERDINTASUN PRINTZIBIOA

Ararteko erakundeak beti uste izan du, **berdintasunak eta giza duintasunaren errespetuak** hala eskatuta, arreta berezia eman behar zaiela euren eskubideen aldetik ahulagoak diren pertsoneri: etorkin, zahar eta adingabeei, desgaitasun fisikoa edota fisikoa duten pertsoneri, gaixo kronikoei, gizartetik bazter geratzeko arrisku handia dutenei...

Kexetako askok zerikusia dute berdintasun printzipioaren ustezko urratzeekin. Oraindik ere hainbat herritarrentzat **berdintasun materiala** bete gabeko **helburua** da, eta helburu hori lortzeko, pertsona eta talde guztien arteko berdintasun benetakoa eta eraginkorra galarazten duten oztopoak kendu behar dira.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, esan beharra dago genero bereizkeriaren adierazpenik larriena indarkeria sexistaren fenomeno kezagarria dela. Emakumeen duintasunari, askatasunari eta osotasun fisikoari egiten dion eraso jasanezina da. Deitoratu behar dugu, beste urte batez, gure gizartean emakume askok pertsonen eskubideen zapaltze handienaren biktima izaten jarraitzea eta Euskadin 2011n hiru emakume hil izana horren ondorioz. **Genero indarkeriak hil dituen** emakumeen dramak gogoeta eragiten digu, beste behin ere, emakume horiei arreta eta laguntza emateko daukagun sistemaren akatsez. Araugintzako neurrien garrantzia ukatzerik ez dago, baina horrek ez digu ahaztarazi behar funtsezko helburua: genero indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko **oraingo baliabideak hobetzea**, unean uneko beharri zehar bizkorrago erantzun ahal izateko, tresna malguagoen bitartez.



Eskubideen urratze kontuetan **atzerritarrak eta gutxiengo kulturalak** talderik ahulenetakoak dira, batez ere arauz kanpoko egoera administratiboan daudenean. Oraingoa bezalako krisialdi batean **kezkarria** gertatzen den **diskurtso sozial** bat hedatu da. Ez du oinarrian inongo azterketa zorrotzik eta immigrazioa delitugintzarekin eta zerbitzu publiko eta prestazioen bidegabeko eta iruzurrezko erabilerarekin lotzen du.

Oso positiboa iruditzen zaigu Eusko Legebiltzarraren legez besteko proposamen bat onetsi izana Euskadiko gutxiengoen eskubideen alde, bai eta **Immigrazioari buruzko III. Euskal Plana** eta arlo horretan abian jarri diren jarduketak ere.

Uste dugu, bestalde, pertsona guztiei euren kultur nortasunerako eta erlijio askatasunerako eskubidea errespetatu behar zaiela, baldin eta oinarritzko beste eskubide batzuen kontra ez badao.

Betidanik **ijito herria** oso talde estigmatizatua izan da eta ahalbide urriagoak izan ditu zerbitzuak jasotzeko eta gizarteko aukerak baliatzeko. Gizartetik baztertuta geratzeko arrisku handiena duten taldeetakoa da. Ijito Herriaren sutapenerako eta partaidetzarako EAEko III. Planaren indarraldia (2009-2011) amaitu da eta gutxi izan dira Plana bete behar zuten administrazio publikoek gauzatutako neurriak.

Beste alde batetik, **desgaitasuna duten pertsonen** zailtasun larriak topatzen dituzte lan merkatuan gainerako herritarrak bezala eta benetako berdintasunez aritzeko, eta eguneroko bizitzan ere, askotan ezin izaten dituzte garraibideak erabili, edota hirigintza eta arkitektura oztopoak gainditu behar dituzte.

Legegintzan urrats garrantzitsuak egin badira ere, **joera homosexualeko pertsonen, gay eta lesbianen, eta nortasun transexuala eta transgenerikoa dutenen** bereizkeria jasaten jarraitzen dute, jarrera homofobikoen eta heterosexismo eskusibo eta baztertzaileren ondorioz. Beste gauza batzuen artean, adineko gay eta lesbianeiei euren eskubideen berri eman behar zaie, bikotekidea hiltzen denean babesik gabe gera ez daitezen; ikastetxeak familia homoparentalei buruzko ikuspegi integratzaile eta normalizatua emango duten material didaktikoez hornitzeko neurriak hartu behar dira, eta genero berekoen arteko indarkeriak sortzen dituen arazoei ekin behar zaie. Hezkuntza Administrazioak eskola ingurunean homofobia eta transfobia errotik erazuziko direla bermatzeko estrategiak lantzea ere funtsezkoa da.



OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

Herritarren **bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubidea** defendatzea Ararteko erakundearen kezka nagusietakoa da.

2011n ez da inor hil atentatu terroristen ondorioz, eta **“indarkeriaren behin betiko amaiera”** iragarriz ETAk egin duen adierazpenak berekin ekarri du jazarpenaren indarkeria jasan duten pertsonak aske bizi ahal izatea, hiltzeko edo osotasun fisikoa galtzeko beldurrik gabe.

Emakumeen aurkako indarkeriak, aldiz, bizitzarako eta osotasun pertsonalerako eskubidearen kontrako urratze larrietakoa izaten segitzen da. Pertsona guztien arteko benetako berdintasuna lortu arte ezin izango da indarkeria mota hori ezabatu. Bitartean botere publikoek erantzun egokia eman behar diete tratu txarrak jasandako emakumeen beharriari. Beharrezkotzat jotzen dugu genero indarkeriaren biktimak diren emakumeei aplikatzen ari zaien justizia sistemaz gogoeta egitea; bereziki, babes eraginkorri dagokionez.

Kezkatu egiten gaituzte polizia egoitzetan ustez jasandako **torturen eta tratu txarren** salaketek. Beste proposamen batzuen artean, poliziaren jarduna etengabe gainbegiratzeko **prebentzio lanean** sakondu beharra azpimarratu dugu. Horrela mekanismo egokiak ezarri ahalko dira polizia kidegoei tratu txar eta torturetan aritzea galarazteko edo legez kontra aritzen badira haien ekintzak salatu eta zigortzeko. Tratu txarren prebentzioa dela eta, **atxiloaldiaren ikus-entzunezko grabazioaren** beharra nabarmendu behar dugu. Arartekoak jada 1999an proposatu zuen neurri hori, eta prebentzioaren arloko nazioarteko erakunde guztiek haren alde egin dute.



Polizia eginkizunen inguruko kekek berriro ekarri dituzte mahai gainera sarritan azaldu diren gaiak, hala nola indarraren erabilera eta horren kontrola, lehenengo kalifikazio judizialek faltatzen jo diren jokoerengatik atxilotetak, poliziek identifikazio zenbakirik ez edukitzea uniformean, poliziaren jardunari buruzko barne ikerketa ustez akastunak, argiketen edukia, eta salaketa bat jaso nahi ez izana. Horrek agerian jartzen du gure gomendioetan azaldu ditugun **prebentzio eta kontrol mekanismoak ez direla betetzen ari** eta ez dela ezta prebentzio eta kontrol mekanismorik ere ezarri agenteek antolamendu juridikoan ematen zaien ahalmenaz abusatu ez dezaten.

Gainera, inkomunikatutako atxilotuentzako bermeen sistema hobetzeko gomendatu izan ditugun neurriak berretsi egiten ditugu. Neurri horiek bat datoz **Europako Kontseiluko Torturaren Prebentzioarako Lantaldearen** azken txostenean azaldukoekin. Tamalez, EAEko poliziek ez dituzte bere egin proposamenetako asko.

Bestalde, herritarrek gero eta ozenago eskatzen dute **intimitaterako eskubidea** eta administrazioek erabiltzen dituzten **datu pertsonalen babeserako eskubidea** berma daitezela. Konfidentzialtasuna errespetatzeko eskatu behar da, asko eta asko direlako datu pertsonalak dauzkaten fitxategiak, informatikako baliabideekin tratatu edo ez eta babes berezikotzat kalifikatu edo ez.

Arartekoa saiatzen da EAEko administrazio publikoek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatu ditzaten, **lanpostu publikoak eskuratzeko prozesuetan** printzipio horiek bete behar baitira.

HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zerga sistemari erreparatuta, kexa gehien eragiten duena **PFEZ** zerga da, baina bera arautzen duten foru arauak berrikuntzak sartu dituzte eta dagoeneko haren aplikazioak arazo gutxi sortzen ditu.

Toki zergen arloan, zenbait toki erakundek, zerga horien kudeaketa bizkortu eta erraztu nahian, zerga zorra bankuan helbideratzera derrigortzen dute zenbait zerga ordaintzeko. Ordainketa modu hori nahitaez ezarri eta beste bide batzuk mugatzean, toki entitateak euren ahalmenen gainetik ari dira eta foru araudiak ez du jokabide hori babesten.



2011n eztabaidatua izan da polizia funtzioetan aritzeko hautagai izan diren emakumeei emandako tratamendua. Ulertu dugu, gaur egungo arau esparruari lotuta, ez zegoela aukerarik emakumezko hautagaientzako **lanpostu erreserba** eta horrelako neurriak ezartzeko. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, orain dela gutxi, bat etorri da erakunde honek lehenago hartutako jarrerarekin, eta hori beharrezko arau aldaketa eskatzeko arrazoa izan da.

Lanpostu edo eginkizun publikoetan jardun nahi dutenen arteko berdintasun eraginkorra **aldi baterako lana** eskuratzeko prozesuetara ere hedatu behar da.

Pertsona guztien oinarriko eskubidea da, halaber, nor bere eskubide eta interes legitimok egikaritzean **epaile eta auzitegien babes eraginkorra jasotzea**, eta ezin zaio inori babesa ukatu.

Sarritan, Justizia Administrazioaren aurkako kexetan azaltzen diren arazo zehatzen atzean gizarte-bazterketa edo pobrezia egoerak daude. Zentzu zabalean bazterketa arazoak dituzten pertsonen egoera horiek, krisi ekonomikoaren ondorioz, zigor arloan ez ezik jurisdikzio zibilean ere gertatu izan dira.

Azpitarratzekoak dira **enbargo eta utzarazpen prozedurei** aurre egin behar izan dieten pertsonen kexak. Etxebizitzaren gaineko hipotekaz bermatutako maileguak ez ordaintzearen ondoriozko prozedurak izan dira. Berriro ere, prozesu judizial luzeegiak, Justizia Administrazioako langileek emandako tratua edo funtzionamenduaren akatsak eta axolagabekeriak izan dira kexen motibo nagusiak.

Konstituzioak dioenez, **askatasunaz gabetzeko zigorrak** gizarteratzea izan behar dute helburu. Espetxearen ordezkotzat tratamendu mota gehiago behar dira, eta ahalik

gehien zabaldu behar da erregimen irekiaren bidea. Horretarako, babesa eman behar zaio elkarte-sarearen lanari, **ordezko zigor** gehienak betetzea errazten duen espazioa baita. Nahiz eta espetxeen arloko eskumena oraindik eskualdatu gabe egon, EAEko administrazioek lagundu egin behar dute zigorrak betetzeko baldintzak egokiak izan daitezen Konstituzioak zigorrari ezartzen dion helburua betetzeko, hots, zigortua berriro gizarteratzeko.

Gizarteratze irizpideei jarraituz, bestalde, planteatzen da **ETAko preso**ei zigorra betetzeko erregimen orokorra aplikatu diezaizela, gainerako presoek aplikatzen dieten berbera. Behin ETAK bere jardura kriminalaren amaiera iragarrita, espetxe politika aldatu egin behar litzateke; esate baterako, presoak Euskal Herriko edo hurbileko kartzeletara ekarri, baldintzapeko askatasuna eman, espetxe-onurak aitortu edo gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenak kartzelatik atera.

Hezkuntzaren arloan, Administrazioak lanean jarraitu behar du hezkuntza programazioa etengabe egokitzen eta hobetzen, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen sarea antolatu eta planifikatzeko ezarrita dauden irizpideak betetzea lortu arte. Ildo horretan oso konpromiso positiboa da ahaleginak egitea hezkuntzako eragile guztiek parte har dezaten planifikazio demokratikoa egiten, herritarren benetako hezkuntza beharretarako egokia.

Hezkuntza premia bereziei dagokienez, eskola orduetan osasun behar bereziei ematen zaien erantzuna bizkortu beharko da.

Hipoteka bermea gauzatu eta etxebizitza kendu dieten pertsonen egoera bereziki latza da. Zenbaitetan, etxebizitza galdu ez ezik, maileguaren zati baten zordun izaten jarraitzen dute, eta hala ere toki erakundeek **gainbalioaren gaineko zerga** ordainarazten diete. Horregatik, Arartekoak **gomendio orokorra** eman du zerga horiek arautzen dituzten foru arauak eta udal ordenantzak aldatu daitezkeen eta ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteken betearazpenen ondorioz egiten diren lur-eskualdaketak zerga hori ordaindu beharretik salbuetsi daitezkeen.

Jabetzarako eskubideak ahalmena ematen du ondasuna erabili, gozatu eta ustiatzeko, betiere lurzoruari buruzko legeriari eta hirigintzako antolamenduari loturik. Hiri lurzorua eraldatu eta bertan eraiki ahal izatea ez da jabetza-eskubideak berekin dakarren ahalmena, botere

publikoen ahalmena baizik. Horregatik, lur jabeen eskubideak eta betebeharrak hirigintzako legeriari lotuta daude beti. **Hirigintzako kudeaketaren** inguruko **arazoak** (urbanizazio gastuak, ordezkotzat ematea) salatzen dituzten kexak gehitu egin dira.

Ondare erantzukizuna ere kexak eragiten jarraitzen duen gaia da. Figura horrek esan nahi du herritarrek kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz euren ondarean kalteak jasaten badituzte. Administrazio publikoek, oro har, nekez aitortzen dute eragindako kalteen erantzukizuna.

GIZARTE ESKUBIDEAK

Pertsona gehienentzat familia erreferentziatzeko gunea da, eta umeak, zaharrak edo beharizan berezi, gaixotasun nahiz mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzeko eginkizun nagusia betetzen du. **Familia tradizionalak bestelako familia ereduak** (familia gurasobakarrak, sexu bereko gurasoenak, familia bananduak edo berrosatuak) gertatu den eboluzioak berriazko arreta merezi du, familia mota guztien erabateko berdintasuna sustatu dadin.

Familia ugarietako laguntza eta guraso bakarreko familien babes indartu beharra dago.

Lana eta familia bateratu ahal izatea familien kezka nagusietakoa da. Indarrean dagoen araudian oraindik ere estaldurarik ez duten langile autonomei lana eta familia bateratzen laguntzeko neurriak hartu behar dira.

Babesik gabe dauden edo horretarako arriskua duten haurrei dagokionez, apustu sendoagoa egin behar da arazoetan esku hartzeko eta familiak babesteko, bai familia berrosatu daitekeela ematen duen kasuetan, baita harrera edo adopzioa egiten duten familien kasuetan ere.

Kezkatu egiten gaitu, bestalde, gizarte zerbitzuen babesean egon diren neska-mutilen **emantzipazioaren uneak**. Izan ere, familiaren laguntzarik ez dutenez, Administrazioari dagokio urrats hori behar bezala egin dezaten arduratzea.

Bidaidetik gabeko adingabe atzerritarren egoera berezia da. Gero eta gutxiago heltzen ari direla egiaztatzen da, eta hala ere laguntza ematen dien sarea ez da nahikoa. Berriz azpimarratu behar dugu larrialdietarako harrera-protokoloaren beharra.

Babeserako gizarte zerbitzuen funtzionamendua hobetu egin dela ikusi dugu, bai babesik gabeko egoeren detekzioaren aldetik, baita familia harrerako zerbitzuetan ematen den arretaren aldetik ere. Era berean positiboa iruditzen zaigu **nerabeek gurasoen aurka erabiltzen duten indarkeriaren** aurrean Administrazioak hainbat erakunde ematen ari diren erantzuna.

Hezkuntza premia bereziak dituzten zenbait kolektiboren eskolatzeari dagokionez, modu egokian ase behar dira desgaitasuna duten ikasleek beharrik, ikasle etorkinenak, ijito herriko ume eta nerabeenak eta gizarte egoera ahuleko biztanleak.

Berdinen arteko eskola jazarpenak, hain gertaera larria denez, etenik gabeko tratamendua behar du, eta tratamendu horretan zeregin garrantzitsua betetzen dute familiek, bizikidetzaren planek eta ikastetxeetan antolatzen diren beste tresna batzuek. Zenbait kasutan teknologia berriak jazarpenarako erabiltzen dira **“ciberbullying”** deritzogun horretan.

Sexu joera edo genero identitate desberdineko nerabeek ere bazterkeria egoerak eta taldean egokitzeko zailtasunak jasaten dituzte.



Kezkatzeko modukoa da zenbat ugaritu diren haurren **pobrezia egoerak** eta horien ondorioak: infraetxe batean bizitzea, elikadura egokia bermatuta ez izatea, hezkuntza eta aisiako jardueretarako aukerarik eza, ikasketak bertan behera uztea...

Osasunerako eskubideari dagokionez, pazienteak gehien kezkatzen dituzten arazoak ez dira mediku laguntzaren ingurukoak bakarrik. Bitarteko alderdiak ere, adibidez itxaronzerrendak, zerbitzu-zorroa edo prestazioak jasotzeko prozedura, kezka iturri izan dira.

Itxaronzerrendei buruz jaso diren kekek zerikusia izan dute tratamenduekin (batez ere antzutasunaren kontrako tratamenduak), ebakuntza kirurgikoekin, espezialisten kontsultekin eta egin beharreko probekin.

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak direla eta, erakundeek gehiago babestu behar dituzte gaixo horien elkarrekin eta haien eskubideen alde diharduten taldeak, eskaintzen dituzten zerbitzuak eta programak bermatu ahal izateko.

Nahi gabeko ospitaleratze eta tratamenduen gaia bereziki kontuzkoa da **buruko gaixotasuna duten pertsonen** ari garenean.

Ingurumen egokia izateko eskubidea dugu. Ingurumenaren arloan jaso diren kexetarik askotan, udal baimena behar duten **jarduera sailkatuek** herritarrei sortzen dieten eragozpenak salatu dira: zarata, usainak eta keak.

Azpimarratzekoak dira Administrazioak egiten dituen obretako zaratarengatik erreklamazioak eta partikularrek eragindako zarata eta eragozpenen gehikuntza.

Lurraren eta uren kutsadurari dagokionez, kontuan hartu behar dira uren eta itsasertzen kalitatea hondatzen duten isurketak salatzen kexak eta lurzoruen kutsadura biologiko eta kimikoak ingurumenean sortzen dituen ondorioei buruzkoak.

Kutsadura elektromagnetikoa ere kezka iturri da, telefonia mugikorrek eta telebistako antena eta

instalazioek, argindarra banatzeko sareek edota wifi bidezko Internet konexioek eragiten duten uhin-emisioagatik.

Horren haritik Arartekoak gomendio bat egin du esanez administrazio publikoek **parte hartzeko mekanismoak** sustatu behar dituztela, ingurumenean ondorioak sortzen dituzten jardueren funtzionamenduaren inguruko gatazkak kudeatzeko. **Ingurumen arloko parte-hartzea** funtsezko elementua da erabaki zuzena hartuko dela bermatzeko, hautabide guztiak oraindik zabalik daudenean.

EAEko biztanle askoren arazo larrietako bat **etxebizitza duina** eskuratzeko zailtasun objektiboa da.

Jakina denez, indarrean dauden arauak eta EAEko administrazio publikoek onetsi dituzten planak eta neurriak ez dira nahikoak izan babes publikoko etxebizitzaren eskariari erantzuteko eta gaur egungo egoera ekonomikoan gero eta gordinago agertzen ari diren etxebizitza beharizan bereziei aurre egiteko.

Botere publikoek lehenbailehen hartu behar dituzte neurriak euren hipotekak ordaindu ezinik dauden pertsonak **etxebizitza galdu ez dezaten**. Hala, finantza erakundeen eta etxebizitza galtzeko arriskuan dauden pertsonen arteko bitartekotzarako bideak sustatu behar dituzte.

Administrazioek, bestalde, etxebizitza babestuen **eraikuntza akatsak** konpontzeko agindu behar diete eraikuntza enpresei.

Desgaitasuna duten pertsonak oraindik ere zailtasun handiak dituzte eguneroko bizitzan berdintasunez aritu ahal izateko. Irigarritasun arazoak topatzen dituzte kalean eta eraikin publikoetan, garraio bideetan nahiz lanpostuetan.

Hainbat arau Pertsonen Eskubideen gaineko Nazioarteko Konbentzioari egokitzen dizkion 26/2011 Legea orain dela gutxi onetsi da eta nabarmendu egin behar dugu, eredu aldaketa dakarrelako: desgaitasuna duten pertsonak eskubideen jabe dira, eta ez laguntza politiken xede.

Urrats garrantzitsuak egin badira ere, **garraio publikoa** guztientzat erabilgarria izatea desgaitasuna duten pertsonen eskakizun nagusietakoa da oraindik ere, eta

garraio zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresetako operadoreek erronka handia dute arlo horretan.

Hezkuntzarako eta prestakuntzarako aukeraberdintasuna ere sistemaren beste zutabe sendo bat da, desgaitasuna duten pertsonak bete-betean eta aktiboki gizarteratu ahal izan daitezen.

Aipatu nahi dugu, halaber, **komunikazioaren arloan irisgarritasuna** bermatuko duten neurri teknikoak hartzea Euskal Autonomia Erkidegoan bete gabeko egitekoa dela. Sentimen-desgaitasuna duten pertsonak ia ezinezkoa dute gaur egungo gizarte sareetan ibiltzea, eta administrazio publikoen web orri askotan ere berdin gertatzen zaie.

Zaharren kolektiboa gero eta handiagoa da. EAEko biztanleetatik ia %20 dira zaharrak. Gainera oso talde heterogeneoa da: autonomia pertsonala eta gizartean modu aktiboan parte hartzeko gaitasuna duten pertsonen ondoan, inoren mendeen eta autonomia pertsonala neurri handian galduta bizi diren pertsonak biltzen ditu.

Gero eta indar handiagoa du **zahartze aktibo** eta osasuntsuaren ideia. Zaharren bizimodu aktibo eta autonomoa sustatuz, pertsona horien bizi kalitatearen hobekuntza ez ezik, gizarte zerbitzuen iraunkortasuna ere lortzen laguntzen da.

Gutziz kezkarriak dira **zaharren kontrako tratu txarrei** buruz, batez ere psikologikoei buruz, dauden datuak. Horregatik oso positibotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak kolektibo horren kontrako tratu txarrei aurrea hartzeko eta horrelako jokabideak agerian jartzeko egin duen kanpaina.

Aldi bereko **osasun laguntza eta gizarte laguntza** koordinatu eta egonkorraren beharrak garrantzi berezia hartzen du zaharren kasuan, eta, batik bat, mendekotasuna duten zaharren kasuan.

Zaharrek erakutsi dute nahiago dutela, ahal dela, euren etxean egon mendekotasunari aurre egiten. Beraz, indartu egin behar dira helburu hori duten neurriak, hala nola telelaguntza zerbitzua, etxeko laguntza, eguneko zentroak, bono-taxi zerbitzua...



ARARTEKOAREN ESKU-HARTZEAK AUKERA EMANGO DU EZGAITASUNEN BAT DUEN SEME-ALABA (%65 EDO GEHIAGO ETA 18 URTE EDO GEHIAGO) ARDURAPEN IZATEAGATIKO PRESTAZIOA JASOTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIEK DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN OSAGARRIA ESKURA DEZATEN

Seme-alaba ardurapean izateagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea duten 18 urtetik gorako pertsona guztiek (ezgaitasuna %65 edo gehiago) **diru-sarrerak bermatzeko errentaren "pentsio osagarria"** eskuratu ahal izango dute, baita legez ezgaituta badaude ere. Horretarako, prestazio hori jasotzeko baldintzak bete beharko dituzte eta horien artean egoera ekonomiko pertsonala dago. Osagarri horri **hilero-hilero 400 euro artekoa** izan daiteke, kasuaren arabera. Hala, talde horri lanbide arteko gutxieneko soldataren baliokidea den diru-sarrera kopurua bermatzen zaio. Eskaerak kasuan kasuko gizarte zerbitzuetan aurkeztu behar dira. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren "pentsio osagarria" izeneko ez da nobedade bat pensio publikoa kobratu eta baliabide ekonomiko gutxi dituztenentzat. Horrela, osagarri hori eskura zezaketen seme-alaba ardurapean izateagatiko prestazioa jasotzeko eskubidea zuten pertsonak, betiere, horiek baziren prestazio hori jasotzen zutenak eta gutxienez 23 urte bazituzten, askotan horren

berri ez edukitzeagatik eskatu ez bazen ere. Orain arte osagarri horretatik kanpo uzten ziren legez ezgaitutako pertsonak. Hemendik aurrera pertsona horiek ere bane hartuko ditu. Arartekoaren ustez, tratu desberdintasuna ez zegoen justifikatuta, legezko ezgaitasunak bereizkeria-elementu gisa jokatzeko baitzuen eta hori onartezina zen. Horrez gain, haren iritziz eskatutako adina ere ez zen egokia, ez baitzen baliaezintasunaren ondoriozko kotizazio gabeko pensioa jasotzen dutenei eskatutakoaren berdina. Adin hori 18 urtekoa da. **Eusko Jaurlaritzak bideratu du aldaketa** hori, argudio horiei dagokienez, aplikatu dadin hiru foru aldundiei helarazitako zirkularren bitartez. Arartekoak uste du hartutako neurriak laguntza ematen diela arreta handia behar duten, gastu asko ordaindu behar dituzten, oro har baliabideak ez dituzten pertsonak, baita ezgaitasun handia edukitzeak ordaindutako jarduera bat gauzatu ahal izateko zailtasuna eragiten dien horiei ere.

ARAZOA GASTEIZEN GURTZA ETA ERLIJO MUSULMANERAKO ZENTRO BAT IREKITZEKO ASMOAREN ONDOTIK



Arartekoak ofiziotzko espediente bat ireki zuen, Gasteizko Zaramaga auzoan sortutako gatazka aztertzeko, **erlijio musulmaneko** pertsona-talde batek **kultu-zentro bat zabaltzeko** nahi zuela eta. Elkarte batek obrak egiteko eta bilera eta kultuko jarduera hori garatzeko baimena eskatu zion udalari. Udalak obra eta jarduera salbuetsirako lizentzia eman zion, lokalean obrak egin ahal izateko. Lizentzia hori lortuta, zilegi zen obrak egin eta jarduera ezartzea. Baina **auzokide batzuek zalantzan jarri zuten proiektu horren egokitasuna** eta hainbat mobilizazio egin zituzten. Ondorioz, gizarte-bizikidetzarako mehatxua ziren jarrera isolatu batzuk sortu ziren. Arartekoaren ustez, elkarteak **obrak hasteko eskubide osoa du**, eta, ikuskapen egokia egin ondoren, kultu-zentroa ireki dezake. Agintari publikoek, bestetik, erlijio-erkidegoen ekimena bermatu behar dute, indarreko legedian ezarritako eran ireki ahal izateko. Horrenbestez, Zaramaga auzoan **kultu erlijiosorako zentroa sustatu duen taldeak legearen babes osoa du**, obrak egin eta zentro hori ireki ahal izateko, udal-lizentzian ezarritakoari jarraiki.

HIPOTEKAK, BAHITURAK ETA ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA

Arartekoak uste du **euskal familia askori eragiten dien egoera oso larriari** aurreko egiteko proposamena egin behar dela botere publikoei eta herri-administrazioei, kontuan hartuta, familia horiei etxebizitza eskuratzeko balio izan dien hipoteka-kredituak ordaindu ezin izateak aipatu etxebizitza galtzea eragin diela eta, gainera, kreditua kontratatu zuten finantza-erakundeekin zorretan jarraitzen dutela. Arartekoak finantza-erakundeen eta eragindakoen artean mekanismoak eta bitartekotza-bideak sortzea proposatzen du, hain zuzen, ordaintzeke dagoen zorraren berfinantzaketarako bidea emango dutenak eta etxebizitzaren enkantea saihestuko duten beste batzuk. Horrez gain, ahal den ahaleginik handiena egin behar da etxetik botarazteko prozedurek eragiten dieten familiek eta pertsonak etxebizitza edukitzeko duten eskubide konstituzionala babes dadin, horietako ezein kalean, **“etxerik gabe”**, geratu ez dadin. Halaber, Arartekoak uste du beharrezkoa dela **Hipoteka Legea eta Prozedura Zibilaren Legea** aldatzea, bahitutako etxebizitza emanda hipoteka-zorra kitatuko duen “ordainean ematea” izenekoa ezar dadin.



BABESTUTAKO ETXEBIZITZA BAT TRUKATZEKO ESKAERA, BIZIKIDETASUN UNITATEKO KIDE KOPURUA HANDITU DELA KONTUAN HARTUTA

Pertsona batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak ez ziolako Donostiako **etxebizitza babestu bat trukatzeko eskaerari** erantzuten. Ondorengoak izatean, bizikidetzak-unitateko kideen kopura igo egin zen, eta, ondorioz, **etxebizitzak ez zuen pertsonako 15 m² erabilgari izateko legezko ratioa betetzen**. Hori dela eta, etxebizitza trukatzeko eskaera aurkeztu zen. Baina eskaera aurkeztu zuenetik sei hilabete igaro ziren eta oraindik ez zuen erantzunik jaso. Informazioa hainbat alditan eskatu ondoren, Arartekoak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saialari gomendatu zion trukeari ekiteko eta herritar honi haren premietara egokitzen zen etxebizitza bat esleitzeko, betekizun guztiak konplizten baitzituen. Azkenik, **Etxebizitza Sailak Arartekoaren gomendioaren edukia onartu zuen** eta herritar horri bere familia-unitatearen beharrezanetara egokitzen zen etxebizitza bat esleitzeko konpromisoa hartu zuen.

ARARTEKOAREN ESKU-HARTZEA ETXEBIZITZATIK KALERATZEKO ARRISKUAREN AURREAN

Herritar batek Arartekoaren erakundearen esku-hartzea eskatu zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko **“etxebizitza hutsen programa”**ren barruan zegoen alokairuko etxebizitza batetik **kaleratzeko arriskuaren aurrean**. Zenbait kantitate ordaintzeke eduki arren, gizarte laguntzak berriro jasotzen hasi zen, beraz, pilatutako zorrak ordaindu ahal zituen. Kasu hori Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoari aurkeztu genion eta horrek zorra kitatzeko epe bat ezartzeko aukera onartu zuen eta **kaleratzea bertan behera utzi zuen**.





BI SALAKETA MINUTU BATEKO ALDEAREKIN

Herritar bat maniobrak egiten ari zen bere **ibilgailu aparkatua** erretiratzeko, agente batek gelditzeko agindu eta agiriak eskatu zizkionean. Ziurtatu zigunaren arabera, une horretan motorra itzali zuen, uhala kendu zuen, agiriak bilatu eta ibilgailutik irten zen, agenteari emateko. Agiriak egiaztatu ondoren, agenteak salaketa jarri zion **segurtasun-uhalik gabe gidatzeagatik** eta buletina entregatu zion. Ibilgailuaren gidariak uhala jarrita zeukala adierazi zion agenteari eta, dirudienez, errekurtsua aurkezteko beta izango zuela erantzun zion hark. Ondoren, segurtasun-uhalik gabe gidatzeagatik salaketaren jakinarazpenaz gain, egun eta leku horretako **beste salaketa bat** jaso zuen etxean, "zirkulaziorako bidean aparkatzeagatik". Adierazitakoaren arabera, jakinarazpen hori ez zen unean bertan entregatu, "gidaria ez zegoelako bertan". Salaketak minutu bateko aldearekin egin ziren. Interesdunaren ustez, ezinezkoa da jakinarazpenaren berri ez ematea "bertan ez zegoelako". Izan ere, une horretan bertan agente baten salaketa jasotzen ari zen, ustez segurtasun-uhalik gabe gidatzeagatik. Arartekoak herritar horren erreklamazioa planteatu zion udalari eta **bi isunak ezetsi zituen**.

HERRITAR BAT EZ DAGO ADOS GASTEIZKO UDAL UREN JARDUERA BATEKIN

Gasteizko merkataritza-lokal baten titularrak Arartekoarengana jo zuen, **AMVISaren** (Gasteizko Udal Urak) **jarduera** batekin ados ez zegoela adierazteko. Izan ere, **1.100 euro eskatzen zizkion** 1996. urtetik kontsumitutako uragatik, nahiz eta berak lokala 2009. urtean alokatu zuen. Lokala erosi eta gutxira egiztatu zuen bertan ur-hornidura zegoela eta idatzia bidali zuen AMVISARA, lokala alokatu aurreko kontsumoen erantzulea bera ez zela jakinarazteko. Likidazioan, AMVISAK ur-bolumena zatitu zuen eta azken 4 urteak fakturatu zituen, preskribatu gabeko aldiak, indarreko tarifaren bikoitza aplikatuta. Hasieran, AMVISAK bere jarduera defendatu zuen. Bere txostenari jarraiki, azken jabea bajan eman zen 1996an eta AMVISA hainbat aldiz saiatu zen hornidura moztzen, baina ezin izan zuen, lokala itxita zegoelako. Hala ere, ez da ageri baja eskatu zuen pertsonarekin edo jabearekin harremanetan jartzen saiatu zenik, lokalera sartzen utzi eta hornidura moztu ahal izateko. Arartekoaren ustez **AMVISAK** era arduratsuagoan jokatu behar zuen. Azkenean, **bere jarduera zuzendu zuen**. Lokaleko maizter gisa egon zenetik igarotako denboraren behin-behineko likidazioa egin zuen.





KEZKA ARABAN GASA ERAUZTEKO PROIEKTU BATEN ONDOTIK

Zenbait elkarte ekologistarekin izandako bileren ondorioz, Gasteizko udalerrian **metano gasa erauzteko** zulo bat egiteko proiektuaren berri izan dugu. Elkarreek adierazi ziguten kezkatuta zeudela ingurumenaren eta pertsonen osasunaren gainean izan ditzakeen eraginengatik, hain zuzen, "shale gas" izenaz ezagutzen den eta ohikoa ez den gasa erauzteko sistemak izan ditzakeen ondorioengatik. Hori dela eta, Arartekoak **ofiziozko espediente** bat irekitzea erabaki zuen; aurreikusitako zundaketa hori onartzeko zer izapide egin ziren **eta ingurumenean zer eragin** izango zuen aztertzeko, bai eta gasa ateratzeko sistema hori aurreikusten duten **planen eta programen ingurumen-ebaluazioa** egin beharrik ba ote zen aztertzeko ere.



ARRETA GOIZTIARRA 6 URTERA ARTE

Ama batek planteatu zuenez, bere semea **beranduegi** bideratu zen neuropediatriaren zerbitzura, eta, ondorioz, aldundiaren arreta goiztiarrera, 3 urte zituenean. Hori dela eta, ez zuen aukerarik izan logopediako eta motor garapenerako saioak jasotzeko, nahiz eta familiak era pribatuan ordaintzen zuen hori. Kasu horretan oinarrituta, Arartekoak hainbat kudeaketa egin zituen eta Bizkaiko Foru Aldundiak **dekretua aldatu eta onartzea** lortu zuen, arreta goiztiarraren eredia lurralde horretan 6 urtera arte hedatzeko (lehen 3 urtera artekoa zen), Euskal Kontseilu Soziosanitarioaren erabakiaren esparruan jaso den bezala. Horrez gain, Arartekoak eskatuta, **Osakidetzak familiari bueltatu zizkion** haurrak 2 urte zituenetik 3ra arte ordaindu behar izan ziren logopediako **gastuak**, 5.200 euroko ordainketa egiteko konpromisoa hartuta.



OFIZIOZKO JARDUERA BABESIK GABE ETA GIZARTE ARRISKU EGOERAN GERATU AHAL IZATEKO AUKERAREN AURREAN



Arartekoak ofiziozko jarduera bat abiarazi zuen osasun-arazo larriak dituzten eta oso nagusiak diren mendeko pertsona biren egoeraren ondotik. Haien egoerak kezkatzen gintuen pertsona horien zaurkortasunagatik

(une batzuetan etxerik gabe) eta irailetik pairatzen egon ahal ziren **babesgabezia eta arrisku egoera** jasateko aukeragatik, hain zuzen, aurkako familia egoera batzuen eta haien espedienteak izapidetzeko Arabako Foru Aldundiaren izapidetan jazotako arazoan ondorioz.

Kasuaren premia eta ezagutzen genituen aurrekariak kontuan hartuta, aldundira jo genuen pertsona horiei berehala etxebizitza bermatuko zien presako izapidea beharrezkotzat jotzen genuela adierazteko. Epe batean, sailak esan zigun bi pertsona horiek egoitza-zentro baten ospitaleratu zituztela eta kasua kudeatzeari ekin ziotela.

Dena den, honelako kasuek argi erakusten dute **premiatzko egoeretan izapideak azkartu** egin behar direla, autonomia erkidego ezberdinen artean espedienteak trukatzera aurreratu diren arazoak gainditu behar direla, eta foru-administrazioak egokiro erantzun behar diela premiatzko udal-zerbitzuek egiten duten lanari eta ematen dituzten balorazioei.

ADOSTASUNIK EZ HAURTZAINDEGI BATEAN EGINDAKO AURREMATRIKULAREN ZENBATEKOA EZ ITZULTZEAREKIN

Pertsona batek adierazi zigun ez zegoela ados Ordiziako Udalaren jardunarekin, ez baitzion itzuli udalerrirako **haur eskolan aurrematrikula gisa ordaindutako zenbatekoa**. Haurdunaldiaren 7. hilabetez zegoenean, aurrematrikula egin zuen, haurra 2011ko urtarriletik edo otsailetik aurrera bertara joango zelakoan eta, horregatik, 253,35 euro ordaindu zituen. Semeak 2 hilabete zituenean, 2010eko urrian, haurtzaindegiari jakinarazi zion ez zuela bertara eramateko beharrik izango, hala, haiek plaza bete ahal izateko. Horregatik, dirua itzul ziezaioten eskatu zuen baina adierazi zioten aurrematrikularen zenbatekoa ez zela itzultzen.

Egoera horretan, udalari informazioa eskatu genion eta azaldu zigun haur eskolen zerbitzua emakida administratiboaren bitartez kudeatzen zela eta gurasoek haien seme-alabak urtarilean edo ekainean inskribatzen zituztela hurrengo ikasturterako. Une horretan antolamenduaren gastuak ordaindu eta zerbitzua emateko beharrezko baliabideak kontratatzeke matrikularen zenbatekoa ordaindu zen (hileroko bat) eta gurasoei **ahoz jakinarazi zitzaizen diru-kopuru hori ez zela itzultzen**.

Hala ere, zerga egitate horrek **ez zuen estaldurarik** haur eskolen udal zerbitzuko prestazioagatik tasa arautzen duen **zerga ordenantzaren** eta **udalari**

zenbateko hori itzul zezan gomendatu genion. Horrez gain, adierazi genion kudeaketa gastuak eta plaza erreserbatzeko gastuak ordaintzeko matrikula bakoitzeko tarifa bat ezartzea egoki irizten bazuen, zerga ordenantza aldatu behar zela. Azkenik, gomendatu genion, aurrematrikularen tarifa bat ezarri gero, zenbatekoen izaera ez-itzulgarriaren gaineko aipamen bat egin zedin familiei ematen zitzaizen informazioan.





HOMOFOBIAAREN AURKAKO BORROKA: AURREIRITZIRIK GABEKO MUNDU BATEN ALDE

Funtsezkotzat jotzen dugu txiki-txikitatik LGTBen eskubideen erabateko errespetuan eta gizarte-integrazioan oinarritutako herritarren kultura bat eratzea. Horregatik, Arartekoa, Europako bestez azpi herrialdeetako bederatzik erakunderekin batera, **Rainbow proiektuan** parte hartzen ari da. Proiektu hori Europako Batzordeak sustatu du eta haren xedea da haurren, nerabeen eta irakasleen artean homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatzeko testuak eta ikus-entzunezko materialak sortzea eta zabaltzea, eta Europan homosexualen eta transexualen eskubideak erabat errespetatu eta aitortuko dituen kultura bat sustatzea.

Proiektu horren esparruan, Europa osoan gazteek (15-19 urte bitartean) egindako **film laburren lehiaketa** bat deitu da. Filmen gaia, programaren xedeei jarraiki, sexu-joeran dagoen aniztasuna eta genero identitatea da, aurreiritzirik gabeko mundua eraikitzeko ikuspegitik.

LGTB pertsonen esparruan kexa asko jaso ez baditugu ere, arlo horretan lan egiten duten elkarteek haien **eskaerak** luzatu dizkigute. Salatutako arazo nagusien artean, honako hau nabarmendu behar dugu: beharrezkoa da adineko **gay eta lesbiane** haien **eskubideen berri ematea**, bikotekidea hiltzen denean babesik gabe gera ez daitezzen; beharrezkoa da neurriak hartzea ikastetxeak familia homoparentalen ikuspegi integratzaile eta normalizatu bat emango duten material didaktikoz hornitzeko; beharrezkoa da eskola-jazarpenaren aurkako borroka orokorrean jazarpen homofobikoaren aldagaia kontuan hartzea edo **genero-barruko indarkeriaren ondoriozko arazoei** heltzea.

ESPETXEAN DAUDEN ATZERRITARREK IZATEZKO BIKOTEEN ERREGISTROAN IZENA EMATEKO BEHARREZKO AGIRIAK ESKURATZEKO AUKERA

Donostiako emakume batek, preso zegoen frantses nazionalitateko pertsona baten bikotea izanda, urte eta erdiz ahalegindu zen harekin **izatezko Bikoteen Erregistroan** alta ematen. Ez zuen lortzen, horretarako espetxean zegoen pertsonaren egoera zibilaren ziurtagiria eskatzen ziotelako, eta hori haren jatorrizko herriko erregistro zibilak eman behar zuen. Frantzia, ordea, agintariek ziotenez, pertsona hori zenbait urtez bere herritik kanpo bizitzeak ziurtagiria ematea galarazten zuen.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailburuordetzarekin harremanetan jarri ondoren, zerbitzuko kudeaketaren arduradun hierarkikoa, azaldu genion pertsona horrek Frantziatik kanpo emandako denbora Espainian preso egondako berbera zela eta, beraz, eskatutako ziurtagiriaren bidez frogatu nahi zen datua -hots, bikotekide biak ezkongabeak izatea-, gure iritziz, agiri bi uztartuz froga zitekeela: alde batetik, espetxe agintarien ziurtagiria, tarte horretan ezkondu ez izanari dagokionez; bestetik, baietsi genuenez, Frantziako agintariek eman zezaketen *“**extrait d'acte de naissance integral**”* delakoa.

Sailburuordea ados agertu zen, eta jarraibideak eman zituen inskribatzeko eskabidea onar zezaten eta, aurrerantzean, erregistroaren **irizpideak** azalduetako zentzuan **zuzenduzitzaten**. Erreklamazioz gileak aipatu agiriak lortu zituenean, haiek aurkezteak **bikotea Erregistroan inskribatzeko balio izan zuten**.



EAEko GARRAIO SISTEMA PUBLIKOAK DUEN IRISGARRITASUNARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

Irisgarritasun unibertsalak berekin dakar hiriguneak, eraikinak, garraio-sistemak, komunikazioa eta zerbitzuak irisgarriak izatea; horiek oinarritzko elementuak dira pertsonen berdintasuna eta haien eskubideekiko errespetua bermatzeko. Garraio-sistemen irisgarritasun unibertsalari esker, herritar guztiak modu aktiboan parte har dezakete, aukera bereberkin, gizarte- eta ekonomia-bizitzan.

EAEko garraio sistema publikoak dituen gabezia eta urritasunak identifikatzen ahalegindu gara, mugikortasun urriko pertsonak joan-etorriak egin ditzaten segurtasunari eta funtzionaltasunari dagokienez (EAEn bizi diren herritarren %37,3 mugikortasun urriko pertsonatzat jo ahal izango da).

Joan-etorrien kate osoan irisgarritasuna bermatzea garrantzitsua da, jatorritik helmugara, zenbat etapa egin diren eta zer garraio-modu erabili den alde batera utzita.

Txosten honetan egindako diagnostikoak aukera ematen du ondorioztatzeko gaur egun **gabezia oso adierazgarriak** antzematen direla eta horiek erabilera unibertsala izatea baldintzatzen dutela.

- EAEk ia iristezina den **trenbide bidezko garraio sistema** du.
- **Errepide bidezko sistemen** irisgarritasun gradua ere ez da oso ona. Halaber, oraindik ez da lortu erabateko irisgarritasuna hiriarteko eta ibilbide luzeko autobusetan.
- **Tranbia sistemak** erreferentzia dira hiri garraio publikoaren irisgarritasun unibertsalaren gaian. Hala ere, hobekuntzarako arlo batzuk daude.
- **Bilboko metro** sistemak irisgarritasunari dagokionez kalifikazio handia lortu du.
- **Euskal aireportuek** irisgarritasun fisikoko baldintzak betetzen dituzte, beti laguntzailearekin, baina oztopoak igarri dira komunikazioan eta horiek zaildu egiten diete zentzumen ezgaitasunen bat duten pertsonen instalazioetatik mugitu ahal izatea.
- EAEko udal askok ez dituzte betetzen **taxi egokituaren zerbitzua** lortzeko bete behar den biztanleria estalduraren parametroak.

Komunikazioan irisgarritasuna bermatzen duten neurri teknikoak hartzea **gainditzeko dagoen gai** bat da oraindik autonomia erkidegoko garraio sistema osoan, baita irisgarritasun fisikoaren aldetik emaitza hobea eskuratu duten horien ikuspegitik ere, alegia, metroaren eta tranbiaren alderditik.



Arantxa Quiroga eta Iñigo Lamarca

ARRISKU EGOERA BEREZİETAN DAUDEN ADİNGABEAK





EAEⁿ NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDE^TASUNARI ARRETA EMATEKO LEGEAREN APLIKAZIOA

Adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik **mendetasun egoeran dagoen pertsona** batek beste pertsona batzuen laguntza behar du eguneroko bizitzaren oinarriko jarduerak egiteko edo, adimen ezgaitasunen bat edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonen kasuan, berriz, beste laguntza mota batzuk haien autonomia pertsonalerako.

2007. urtean **autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko legea** indarrean jarri zen. Estatuko araudi horrek gizarte politiketan aurrerapen handia ekarri zuen, mendetasun egoeran dauden pertsonen legean xedatutako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea eskubide subjektibo gisa aitortu eta arautu zelako. Edozelan ere, lege honetan xedatutako prestazio ia gehienak dagoeneko euskal administrazioek eskaintzen zituzten.

Hiru **foru aldundiak** sistema berriaren **ezarpenaren** eta estatuko araudiaren garapenaren **buru izan ziren**, udal eta autonomia administrazioaren laguntzarekin. Kudeaketa zuzena izan da baina antzeman dugu hiru lurralde historikoetan autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta emateko legea desberdin aplikatu dela eta horrek eskubideen bestelako gozamena sortzen du.

Beharrezkoa da administrazioen erakunde arteko behar bezalako koordinazioaren alde egitea, bereziki, gizarte eta osasun sistemaren artean.

Eta EAE gizarte alderdi askotan erreferentzia bat izan bada -eta da- ere, beharrezkoa da mendetasun egoeran dauden herritarrentzat eta haien zaintzaileentzat **gizarte balibideak sortu eta mantentzeko egitekoarekin jarraitzea**.

Azken batean, **autonomia pertsonalaren sustapena eta mendetasun egoeran dauden pertsonen babesa** izan behar dira **euskal herri-administrazioen lehentasuna**.

Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak txostena urte askotan zehar eta hainbat egoeratan bideratutako segimenduzko lan jarraituaren ondorioa da. Ez da haurtzaroari buruzko **diagnosi orokorra**, **arrisku egoera bereziko kasu jakin batzuei buruzkoa** baizik.

Ikerketak agerian uzten du **gure gizartearen oraindik bazterketa ibilbideak daudela**, horietako asko adingabearen hazkuntza eta premientzako laguntza elementu oinarrikoa izan behar lukeen familiarik ez egoteari edo haren porrotari lotuak.

Arrisku egoera oso berezietan dauden adingabeei arreta hobeto emateko konpondu beharko diren hainbat **ahulezia** antzeman dira.

Horretarako, txosten honetan Arartekoak zenbait gomendio egin ditu. Besteak beste:

- Haurren eskubideei buruzko gizarte kontzientzia indartzea eta zabaltzea.
- Familiei dituzten eginkizunak ondo burutzen laguntzea.
- Erakundeen erantzukizunak hobeto argitzea.
- Erakundeen lidergoa behar diren balibideak sortu eta defendatzeko.
- Lortutako emaitzen ebaluazio sistematiko eta publikoa.
- Zerbitzuen eta profesionalen arteko koordinazioa hobetzea adingabeekin izandako esku-hartzeetan koherentzia handiago bermatzeko.

BESTE GIZARTE PRESTAZIO BATZUEN TITULARRAK DIREN PERTSONEI LANGABEZIAKO SUBSIDIOA ETETEAREN ONDORIOZ JAZOTAKO EGOEREI ERANTZUN BAT EMATEKO BEHARRA



Langabeziako subsidioa (estatuko prestazioa) jasotzen zuten pertsonen kasu batzuk mahaigaineratu dizkigute. Prestazio hori diru-sarrerak bermatzeko errentarekin osatzen zen azken prestazio horren mailara arte. Horrez gain, zenbait pertsonak etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntza jasotzen zuten (etxebizitzarako prestazio osagarria). Azken bi prestazio horiek EAEkoak dira eta familia unitateari zuzenduta daude. Hori gorabehera, **Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak** (EEZP) diru-sarrerara horiek subsidioaren titularrari bakarrik ematen dizkio eta, ondorioz, kobratu ahal izateko ezarrita dagoen diru-sareren muga gainditzen du. Hortaz, subsidioa bertan behera utzi eta atzeraeragineko izaerarekin egin zuen, eta horrek kopuru batzuk itzultzea eragin zuen. Arartekoa ez dator bat irizpide horrekin eta gomendio horretan halaxe adierazi zuen.

Gure iritziz, ez da etxebizitzarako laguntza zenbatu behar eta diru-sarrerak bermatzeko errentan pertsona bati dagokion zati proportzionala soilik kalkulatu behar da, familia arloko prestazioa baita eta ez pertsonala. EEZPk lehenengo alderdia onartu eta haren irizpidea aldatu zuen une batetik aurrera baina bigarren kontuaren inguruan haren iritzari eutsi dio. Langabeziako subsidioa (estatuko prestazioa) jasotzen zuten pertsonen kasu batzuk mahaigaineratu dizkigute. Prestazio hori diru-sarrerak bermatzeko errentarekin osatzen zen azken prestazio horren mailara arte.

1960KO ETA 1970EKO HAMARKADETAN JAIOPERRIAK BEREN AMA BIOLOGIKOENGANDIK BIDEGABE EBATSI EDO BANANDU ZIRENEKO EGINTZAK ARGITZEN LAGUNDUKO DUTEN NEURRIEN PREMIA

Arartekoak hainbat kexa jaso ditu jaioperriak ama biologikoengandik bidegabe ebatsi edo banandu izanari buruz. Helarazten diguten kezka bikoitza da: alde batetik, haien seme-alabak ezagutzekoa edo, hala badagokio, haien amak eta, bestetik, gertaerak eta prozedura argitzekoa. Horrez gain, gertakari mota horiek **ikertzeko** pairatzen ari diren **zailtasunak** salatzen dituzte. Egoera horrek **gizartearengan alarma** eta **erakundeekiko mesfidantza** eragin ditu, beraz, **ezinbestekoa da** gertakari horiek **argitzea**. Ildo horretan, Arartekoak uste du, auzibideaz gain, gertatu zenaren berri izateko aukera emango duen, baita adopzioak gauzatzeko baliatutako prozedura eta modua ezagutzeko ere, beste mekanismo bat artikulatu beharko litzatekeela. Horretarako egokia litzateke **aditu independenteek osatutako batzorde bat eratzea**, gertatutakoa azter dezaten eta, txosten bat egin ondoren, biktimei nolabaiteko ordaina emateko bideak proposa ditzaten. Halaber, **eragindakoen partaidetzarako** bidea emango lukeen prozedura arbitratu beharko litzateke.

ERKIDEGOKOAK DIREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BIZI DIREN IJITOEEN EGONLEKUE TAN ESKU HARTZEKO JARDUTE-PROTOKOLOAK GARATZEKO BEHARRA



Euskal Autonomia Erkidegoan erkidegoko ijitoen finkapenak daude, **baldintza kaskarretan eta gizarte-arretarik gabe**. Beren egoeraren ezaugarri nagusiak baldintza higieniko eta sanitarioen falta, langabezia-tasa

altuak eta txirotasuna dira. Erakunde humanitarioen laguntzei eta eskean ibiltzeari esker bizirauten dute. Arartekoak auzokideen kezak jaso ditu. Bertan, finkapenak salatu dira, segurtasun faltaren sentazioa ematen dutelako eta baldintza higieniko eta sanitario kaskarrak dituztelako. Halaber, **Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluan** ordezkaturata dauden erakundeek beren kezka adierazi digute, finkapen horietan bizi ziren pertsonen egoerari buruz eta beren beharrezanean erantzun egokia emango dieten politika publikoak martxan jartzeko premiari buruz. Azken urteetan, pertsona horien duintasunari eragiten dioten urrats garrantzitsuak eman dira; jasan duten jazarpen historikoa aitortu da. Baina oraindik bide luzea dago egiteke, batez ere legezko esparrua aplikatzeko orduan. Hori dela eta, Arartekoak finkapen horietan esku hartzeko **jarduera-protokoloa** egiterakoan inplikatzeko eskatu die administrazio eskudunei, ijitoek **gizarte-eskubideak eskura ditzaketela**, beren betebeharrak betetzen direla eta bizilekuaren bortxaezintasunerako eskubidea dutela bermatzeko.

OSASUN ARLOKO DATUEN LAGAPENA ADINGABEEN BABESERAKO ALORREKO HERRI ADMINISTRAZIO ARDURADUNEK ESKATUTA

Foru aldundiek familia babesteko alorrean egiten dituzten jardueren barruan, datuak lagatzen dira. Osasun-zerbitzuek egiten dituzten lagapen horiek beharrezkoak dira foru-arduradunek beren funtzioak era egokian gara ditzaten. Baina **osasanari buruzko datuek babes berezia dute**. Horregatik, datuak laga ahal izateko legezko gaikuntza nahikoa dagoela esateko, osasanarekin lotutako datuak direla zehaztu behar da. **Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legearen arabera, legezko gaikuntza nahikoa** dagoela esan dezakegu, baina Legeak ez dio atea irekitzen osasanari buruzko edozein daturi. Datu horiek eskuratzeko modua egokia, bidezkoa eta neurtua izan behar da, xedeari dagokionez. Horretarako, datuak lagako dituenak eskaera bere xedera egokitzen dela egiaztatu behar du. Kasurako esanguratsua diren datuak soilik ateratzen dituen txosten zehatza eginez gero, garrantzitsuak ez diren eta pertsonen intimitateari eragiten dieten datuak lagatzea saihestuko da.



HAURREK ETA NERABEEK EGINDAKO KIROLA, UNE ORO ETA EDOZEIN TESTUINGURUAN, HEZKUNTZA PARAMETROEN ARABERA GARATZEN DELA BERMATZEAREN EGOKITASUNA



Jakin ahal izan dugunez, entrenatzaile batzuek **jarrera kezagarriak** dituzte haurren kirol-praktikari dagokionez,

ahalegina, hobekuntza pertsonala eta frustrazioarekiko erresistentzia jarrera gaitzesgarri, oldarkor, umiliagarri edo neurrigabeekin nahasten baitute. Arartekoaren iritziz, kirol-praktikak neska-mutilen hezkuntza osoari egin diezaiokkeen ekarpena oso baliotsua da. Hezkuntzaren aldagai hori kirol-praktikan aurkitzen da, entrenamenduak egunez egun orientatzeko eta egiteko moduan, hain zuzen ere. Horrela, balore positibo horietan oinarriturik garatutako kirola bizi dezakete haurrek.

Hori dela eta, **Arartekoak honakoa gomendatu** die eskumena duten herri-administrazioei: kirol-praktika hezigarria haur eta nerabeekin era egokian garatzeko **jarrera aproposenak zehaztea** eta horrek lehentasunez izan behar duen eduki hezigarriaren kontrako jarrerak zigortzea, hala gertatzen den **une, leku eta testuinguru guztietan** aplikatuko den **diziplina-araubidearen** bidez.

ETXERIK EZ DAUKATEN PERTSONEK ETA FORU ALDUNDIEN TUTORETZA DUTEN ADINGABEEK, UDALEARRI HORRETAKO EGOITZA-ZENTROETAN BIZI DIRENEK, UDALEKO ERROLDAN IZENA EMAN DEZATEN JARDUERAK BURUTZEARI DAGOKIONEZ UDALEK DAUKATEN BETEBEHARRA

Udal-errolan izena emanda egotean, eskubideak erabiltzeari lotuta dagoenez (osasunerako sarbidea, gizarte-babesa...), ahulezia-egoeran dauden pertsonak gizarte-babeseko programetan sar daitezke eta, horrela, bazterkeriako prozesu larriagoak saihesten dira. Baina pertsona batzuek **izena emateko zailtasunak** dituzte, batez ere bizilekurik ez daukatelako. Hala ere, **errola udalerrian bizi diren pertsonen erregistroa da** eta, araudiaren arabera, udalek bertan bizi diren pertsona guztiak erregistratu behar dituzte, etxebizitza legezkoa den, bizigarritasun-baldintzak dituen edo hirigintza-egoera zein den alde batera utzita. Txabolak, karabanak eta teilaturik eza bera ere bizileku onargarriak dira errolarako. Foru aldundiek, bestetik, ere babesik gabeko adingabeei agiriak emateko betebeharra dute.

EAEko udalek oso era desberdinetan jokatzten dute eta **irizpide deasberdinak** erabiltzen dituzte errolan izena emateko orduan. Horrek segurtasun eza sortzen du juridikoki, berdintasunaren printzipioa urra dezake, eta baita legezotasunaren printzipioa ere. Arartekoak udalei gogorarazi die **beren legezko betebeharra dela udalerrian bizi ohi diren pertsonak errolatzea**, bai egoitza-zentroetan bizi direnak, bai kalean bizi direnak, etxerik ez daukatelako.



BANANDUTAKO GURASOEK JASO BEHAR DUTEN INFORMAZIOA, ADMINISTRAZIOAK HAIEN SEME-ALABEN INGURUAN DITUEN DATUEI DAGOKIENEZ, ETA AURKEZTU BEHAR DITUZTEN AGIRIAK

Administrazioak adingabe bati buruzko datuak dituenan, haren intimitatea babesteko betebeharra dauka. Hortaz, bidezkoa da adingabearen legezko ordezkari batzuen duenari bakarrik horien berri ematea. Dena den, ordezkari hori egiaztatzeko, nahikoa da gurasoek familia-liburua aurkeztea elkarrekin bizi badira; bananduta badaude, aldiz, horrez gain, guraso-ahala kendu ez dietela frogatu behar dute. Arartekoak uste du eskakizun horrek ez duela legezko oinarririk eta aldatu egin behar dela, **persona bat ez baita ama edo aita hobea ezkontuta, bananduta edo ezkongabe egoteagatik**. Beste kontu bat izango litzateke gurasoen eta seme-alaben arteko zereginak larriki ez betetzeagatik guraso-ahala kendu izan baliote.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari gomendatu diogu bananduta edo dibortziatuta dauden gurasoei onar diezaien eskola-bilakaeraren gaineko informazioa **jasotzeko eskubidea**, baita irakasleekin biltzekoa ere, gainontzeko gurasoek egiten duten moduan, haien seme-alaben zaintza eduki edo ez alde batera utzita. Osakidetzak, bestalde, adingabeen **osun dokumentazioa eskuratzeko prozedurak berrikusi** beharko litzuzke, adingabe baten legezko ordezkari egiaztatzeko baldintzak berberak izan daitezten, gurasoak bananduta egon edo ez eta adingabearen zaintza guraso bati edo biei dagokien alde batera utzita.



GIZARTE PRESTAZIOAK JASOTZEKO ESKUBIDEA BERTAN BEHERA UZTEAREN ETA HORRETARAKO ERABILITAKO MODUEN ONDORIOAK. DIRU SARREERAK BERMATZEKO ERRENTA ETA ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA



Gizarte prestazioak modu irregularrean etetearen gainean jasotako kexa kopurua nabarmen handitu denez, Arartekoak gomendio bat egin du. Izan ere, batzuetan, eteteko neurria aplikatzen da jasotzaileek **ez-betetzere**n bat egin izanaren susmoa dagoenean, alegazioak aurkez ditzaten aukerarik eman gabe. Horrez gain, antzeman dugu batzuetan prestazioa berrabiarazten denean jasotzaileek eskaera berri bat egin behar dutela, kontuan hartuta araudiak xedatzen duela prestazioa ordaintzeari berriro ekingo zaiola etetea eragin zuten arrazoiak indargabetzen direnean. Alegia, pertsona horiek zenbait hilabetetan ez dute prestazioa kobratzen baldintza guztiak bete arren. Gomendioaren beste alderdi garrantzitsu bat da etetea jakinarazten duen idazkien **arrazoiketarik ezari** buruzkoa. Kasu askotan, eskubidea eteten zaien pertsonak ez dakite zergatik eten zaien prestazioa (gizarte langileak modu estraofizialean jakinarazten duenean izan ezik).

Azkenik, Arabaren kasuan, jasotzaileek bidegabe jaso ahal izan dituzten zenbatekoak kobratzeko baliatutako berariazko prozeduraren erabileran erabateko gabezia antzeman da. Ondorioz, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonak zenbateko batzuk itzuli behar dituzte (batzuetan 20.000 euro baino gehiago), prestazioa eteteko arrazoiaren berri izan gabe eta alegazioen bitartez defendatzeko aukerarik eduki gabe.

ABIADURA MURRIZTAILEAK HIRIKO ETA HIRIARTEKO BIDEETAN

Arartekoak errepideetan eta hiri bideetan **gehiegizko abiadurak** eragiten dituen **segurtasun arazoei** buruzko hainbat kexa jaso ditu. Herritarren eskaera kontuan hartuta, udalerrri gehienetan **gailuak** jarri dituzte **ibilgailuen abiadura murrizteko** eta trafikoko istripuak ekiditeko. Araudi teknikorik ez dagoenez, administrazio bakoitzak irizpide bat jarraitu du eta, ondorioz, sistema batzuen eta besteen arteko desberdintasunak handiak

dira. Horregatik, abiadura murriztaileak haien eskumeneko zirkulazio bideetan jarrita dituzten herri-administrazioei gomendatzen diegu instalazio mota horien ezaugarri teknikoaren gaineko erregulazioa gara dezaten edo, behintzat, egun dauden erregulazioak modu formalean edo haiena baillitzan erabil ditzaten.

HIPOTEKA BETEARAZPENETATIK SORTUTAKO ESKUALDATZEAK HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ORDAINTZETIK SALBUETSITA GERATZEKO PROPOSAMENA, SUBJEKTU PASIBOEN OHIKO ETXEBIZITZARI ERAGITEN DIOTENEAN.

Uneko egoera ekonomikoa bereziki gogorra izaten ari da pertsona askorentzat gure autonomia erkidegoan. **Lana galtzeaz gain, ezin** izan diote **hipoteka-kredituen ordainketari aurre egin** eta horrekin, ohiko etxebizitza zena galdu dute. Etxebizitza baten eskualdatzea, enkante publiko batean indarrezko besterentze batek eragindakoa bada ere edo banku-erakundeari esleitu zaiolako, eragiketa kaltegarria da zerga ikuspegitik.

Hasteko, udalek familia horiei Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga (*udal plusbalioa zerga*) likidatu behar diete. Sortutako zerga kuota, faktore askoren mende egongo da, baina zenbateko handiak islatu ohi dituzte, eragindako familien egoera ekonomikoa estua kontuan hartzen bada. Hori bai, zerga horren azpian dagoen justifikazioa lurzoruaren eskualdatzearekin ondaretutako gainbalioaren zati bat komunitateari itzultzea baldin bada, higiezin baten indarrezko besterentzeak hipoteka betearazpen batean kontrakoa adierazten du.

Beraz, gure ustez, justizia materialaren ikuspuntutik, **indarrezko eskualdatze horiek ez lukete zergarik izan beharko** subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzan eragina dutenean. Horregatik, zerga hori erregulatzen duten **foru arauak alda daitezzen gomendatzen dugu**, baita **udaleko ordenantzak** ere, zergatik salbuetsita gera daitezzen ohiko etxebizitzaren hipoteka-burutzapenean arazoitutako lurren eskualdaketak. Arabako Foru Aldundiak proposamen hori Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organora eramateko konpromisoa hartu du.

ZERGA



HERRITARRENTZAKO DEMOKRAZIA ETA PARTE HARTZEA. BEREZIKI, INGURUMEN PROZESUETAKO PARTE HARTZEA

Gomendio horrek hainbat elkarte eta pertsonak aurkeztu dizkiguten arazoak biltzen ditu herritarren parte-hartzeari buruz hirigintza eta ingurumenarekin lotutako gaietan. Gure antolamendu juridikoak ingurumeneko parte hartzea sartu du, nazioarteko tresna juridiko zenbaitetan oinarrituta; horrek denak funtsezko hiru oinarri dituen nolabaiteko ingurumen-demokrazia sortu du: **informazioa, parte-hartzea eta justiziarako sarbidea**. Horregatik, herritarren partaidetza behar bezala bideratzeko kontuan hartu beharreko hainbat printzipio proposatzen ditugu. Honako printzipio hauek dira: unibertsaltasuna, proaktibotasuna, laguntza, neutraltasuna,



erabakitasuna, parte-hartze erreala eta eraginkorra, gardentasuna, segurtasun juridikoa eta adiskidetzeta. Gomendioen barnean **herritarren parte-hartzea gai publikoetan arautzen duen legea** izapidetzeko beharra proposatzen dugu gure autonomia erkidegoaren barnean. Ingurumenaren alorrean, lehentasuna da Eusko Jaurlaritzak printzipio hauek eta Aarhuseko Hitzarmenetik ondorioztatutakoak egokitu ditzala Ingurumenaren Lege Orokorrean. Parte hartzeko dauden prozesuei dagokienez, uste dugu dagokien administrazioek bitarteko eta **borondate politiko** nahikoak eskaini behar dituztela kalitateko oinarritzko estandar batzuk betetzeko, ingurumeneko auzietan parte hartzeko.



BERME SISTEMA POLIZIAREN JARDUERA ETA PRAKTIKETAN

Gomendio honek arlo horretan antzematen ditugun **gabezia nagusiak aztertzen ditu** eta **horiek zuzentzeko neurriak** proposatzen ditu. Horietako batzuk Arartekoak Ertzaintzari eta tokiko polizia helarazitako beste gomendio batzuk sakontzen dituzte eta poliziaren praktikak gainbegiratzeko mekanismoak ezartzeko beharra azpimarratzen dute. **Poliziaren balizko portaera desegokien** ikerketa, jardueren arrazoiketa eta erregistroa aztertutako mekanismoetako batzuk dira, baita indarraren erabilera kontrolatzeko berariaz erabilitakoak ere. **Atxiloketaren berme sistemari** dagokionez, arreta berezia jarri dugu konstituzioak atxilotuari aitortzen dizkion zenbait eskubidetan (adibidez, haren eskubideen eta atxilotzeko arrazoi berri berehala eta modu ulergarrian emateko eskubidea, aitortu behar ez izateko eskubidea eta abokatu-laguntza jasotzeko eskubidea).


Halaber, Arartekoak gorputz-miaketa, atxiloketa epaitegiari jakinaraztea, jardueren erregistroa, otorduak eta eginbideak eta bideo-grabazio sistemak aurrera eramateko lekuen gaineko irizpideen ezarpena aztertu ditu, kontuan hartuta alderdi horietan guztietan gabeziak antzeman ditugula. Indarraren erabilera, agenteen prestakuntza eta gomendioan jasotako arloetako jardueraprotokoloen ezarpena ere aztergai izan dira. Gomendioan hainbat kontu berri jorratu ziren, hala nola, poliziaren uniformean lanbide identifikazio-zenbakia agertzea edo atzerritarrekin diskriminaziozko jarduerak saihestea.

EGIA, JUSTIZIA ETA ORDAINA DIKTADURA FRANKISTAREN BIKTIMENTZAT: ESANAHIA ETA POLITIKA PUBLIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2011. urtearen amaieran, Arartekoak xede bikoitza zuen **azterlan** bat egin zuen: **onartzea biktimek eskubidea dutela** egia, justizia eta ordaina jasotzeko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen argitan eta eskubide horiek **politika publikoetarako** zer **ondorio** dakartzaten azaltzea gerra zibilaren biktimei dagokienez eta jardunbide onak identifikatzea.

Egia, justizia eta ordaina jasotzeko eskubideak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean aitortuta eta garatuta daude, ordenamendu juridikoa osatzen duena eta, halakoa denez, botere publikoek nahitaez bete beharrekoa. Azken urteetan, EAEko herri-administrazioak izaera anitzeko **ekimenak** burutu dituzte: kalte-ordain ekonomikoak eman dira, adierazpen politikoak eta aintzatespenerako ekitaldi publikoak egin dira, eremu publikoetatik ikur frankistak kendu dira, desagertutako enbrikoen mapa batean aurrera egin da eta ikerketak egiteko dirulaguntzak eman dira.

Agindu etikoa eta juridikoa izateaz gain, diktadura frankistaren biktimezako **egia, justizia** eta **ordaina** gizarte bakerako bidea dira, eta ez boterearen egonkortze gisa bakarrik ulertuta, partekatutako printzipio batzuk oinarri dituen komunitate politiko baten nahia baizik. Oro har, herri-administrazio guztiak berandu ari gara konplizten **frankismoaren biktimek sufrimendua aintzateste**ko daukagun betebeharra. Inoiz ezingo diogu eskerrak emateari utzi askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen alde borroka gogoz egin zuten horiei. Memoria edukitzea askatasunaren iturria bizirik mantentzea da.



HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

2011n, haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa argi eta garbi aipatzen zuten 292 kexa-espeditente izan ziren guztira, Arartekoaren guztizko jardunaren ia %12,4. Ez dira zenbatu diru-sarrerak bermatzeko errentaren inguruan zenbait familiek aurkeztu dituzten 290 kexak, kontuan hartuta familia horietan dagoen adingabeen ehuneko-kopurua handia dela. Análisi handirik egin gabe, hainbat ikerketek baliabide ekonomikorik eza eta ondasun materialak eskuratzeko aukerarik eza, bizitza maila egokia, hezkuntza eta osasuna, besteak beste, bezalako oinarrizko eskubideak aukera berdintasunez gozatzeko zailtasunekin lotzen dituzte.

ESKUBIDEEN WHARTEA



2011ko bulegoko jardueraren zenbait alderdi garrantzitsu

Hezkuntzaren arloan, gure ustez, Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzaren faseko lehenengo zikloko egoeraren gaineko diagnosis amaitu behar du.

Horrez gain, **hezkuntza programazioa** egokitzeko eta une oro hobetzeko lanarekin jarraitu behar da unibertsitateaz kanpoko zentroen sarea antolatuta eta planifikatzeko ezarritako adierazleen erdiespen eraginkorra lortu arte. Garrantzitsua da hezkuntza eragile guztien partaidetza herritarren hezkuntza beharizan errearen planifikazio demokratiko eta egokia sortzeko prozesuan bermatzen saiatzeko konpromisoa gaineratu izana.

Hezkuntza-premia bereziei dagokienez, berriro ere adierazi behar dugu hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazio handiagoa ahalbidetzeko jardunbide onak ezartzeko ahaleginak areagotzeko beharra.

Eskola bizikidetzaren alorrean, gailentzen dugu bizikidetzaplanak burokratizatzearen arriskua saihestu behar dela eta jardunbide onak ezarri behar direla, horien artean,

familiekin elkarlanean gehiago aritzea barne hartu beharko da. Horrez gain, aipatu behar dugu jazarpen homofobiko eta transfobikoari emandako arreta, batzuetan berdinen arteko tratua txarren oinarria.

Babesik gabeko haurrentzako gizarte zerbitzuen esparruari dagokionez, berriro ere azpimarratzen dugu familiei emandako laguntza, hain zuzen, haien guraso ahalmenak baliatzerakoan. Egia bada ere txostenean batez ere bigarren mailako arretaren gizarte zerbitzuen jarduera agerian jartzen dela, aurreko faseetan familiei emandako arreta gailendu nahi dugu, ezer gertatu baino lehen edo egoerak larriagotu baino lehen, prebentziozko eta arreta goiztiarraren asmo argiarekin. Bistakoa da hezkuntza-jarraibideen inguruan orientatzeko eta aholkatzeko denbora luzean egindako lanak, zailtasun hasi berrietan laguntzeak, berezko eremuan eta eremu komunitarioan esku hartzeak eragina duela haurren eta nerabeen garatzeko ongizate baldintzetan eta kohesioan, babesik gabeko ondorio larrienak argi eta garbi desaktibatuz edo txikiagotuz.



Babesteko gizarte-zerbitzuetan arreta eman zaien neska-mutilen prozesuko beste une kritiko bat **emantzipazioa** da. Legezko adin-nagusitasunera iritsita, nekez imajina ditzakegu pertsona autonomo gisa, ez baitira benetako autonomia ematen duten elementuen jabe: lana, ballabide ekonomikoak eta egoitza-ballabideak. Familiarik ez dutenez -beste kasu batzuetan emantzipatzeko euskarri nahikoa-, administrazioak arreta berezia emanez zaindu behar ditu, igarotze hori behar bezala egin dezaten, bereziki, **bakarrik dauden adingabe atzeritarren** kasuan.

Edozelan ere, egia da babeserako gizarte zerbitzuen funtzionamenduan hobekuntza bat antzeman dugula.

Familia politikari dagokionez, uste dugu egokia dela Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren (2011-2015) izenekoaren zeharkako ikuspegia, baita **Adingabekoei balioak transmititzea** izeneko Arartekoaren txosten bereziko gomendioen bitartez proposatutako ildotik aurrera egiteko estrategiak, xedeak eta neurriak barne hartzea ere.

Nerabeek gurasoen aurka egiten duten indarkeriaren bilakaeraren berri izateko zain jarraitzen dugu, hala gertakariaren azalpenarekin eta diagnosiarekin zerikusia duen arloan, nola hainbat instantzia administratibo eratzten ari diren arretaren eta esku-hartzearen arloan. Jardunbide ontzat dauzkagu ezagutu ahal izan ditugunak, eta berriro diogu beharrezkoa dela prebenitzeko eta fase goiztiarretan arreta emateko ahalegina areagotzea.

Profesionalen eta gizarte-erakundeen antzera, gu ere kezkatuta gaude **genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabek** paira ditzaketan egoerengatik; izan ere, oraingoz, ez dira hartzen indarkeria horren zuzeneko biktimatzat, berariaz eraso egin ez bazaie. Hori horrela, haur horiek zuzeneko biktimatzat jotzeko eta horien diagnosiaren alde gaude, sentsibilizaziorako, prebentziorako, arretarako, erakunde arteko koordinaziorako esku-hartze egokiak artikulatzeko abiapuntu gisa.

Gizarte eta osasunaren esparruan, arreta goiztiararen ereduko hobekuntzak gailentzen ditugu eta uste dugu premiazkoak direla gizarte eta osasun arloko sistemaren inguruko jarduerak, hain zuzen, buruko osasunaren esparruan eta, bereziki, mugako nortasun-nahasmenduari ematen zaion arretan bitarteko egituren eskasia bideratzeko.

Arretarako sistema sektorialen inguruko gogoeten amaiera gisa horiek guztiek aurre egin behar dioten **erronka** bat izan nahi dugu hizpide: arreta elkarguneetan, mugako edo sistemen artean partekaturiko lurraldeetan, erantzun konplexuetan eta sail artekoetan, erakunde artekoetan, diziplina artekoetan emateko erronka. Izan ere, gure adingabeak osoki garatzeko eta haiak gizartean parte hartzeko bideak izan daitezten, beharrezkoa da horretan konprometitutako eragile eta instantzia guztiek elkarrekin eta modu integratuan lan egitea.

Horrez gain, **iritzia azaldu eta informazioa jaso eta emateko eskubiderako** aukera ematea. Haur eta Nerabeen Kontseiluaren esperientzia oinarritzat hartuta, jadanik harekin hasi baikinen bidea egiten, eta **Eskubideen uhartera** 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzako webgunea argitaratu dugunetik, aurrera egitera animatzen dugu, **parte hartzeko bide errealek eta egonkor** gehiago eraruta, horri denbora gehiago eskainita eta mekanismo egokiak, metodologia erakargarriak eta halakoak ezarrita, adingabeek haien bizitzari eragiten dioten arloetan parte hartuko dutela bermatzeko.

ARGITALPENAK

- Eusko Legebiltzarrentzako Txostena, Arartekoaren erakundeak aurreko urtean gauzatu duen lana jasotzen duena.
- EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa izeneko txosten berezia.
- Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak izeneko txosten berezia.



Arantxa Quiroga, Iñigo Lamarca eta Julia Hernández

- EAEen norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa izeneko txosten berezia.
- Adingabeak ala atzeritarrak? Esku hartzeko politiken azterketa, lagundu gabeko adingabe

eskubideen uhartera la isla de los derechos

2011
azaroak 20 de noviembre



atzeritarren gainekoa. Arartekoak sustatu eta Alazne Gozalo Goicoechea, Eva Jiménez Martín eta Laura Vozmediano Sanzek egindako ikerlana. «Horren helburu nagusia izan da laguntzarik gabeko adingabe atzeritarrekin EAEen erabiltzen ari diren esku-hartze politikak deskribatzea, giza eskubideen eta haurren eskubideen errespetuaren esparruan.

- **Etorkinek zerbitzu eta prestazioetara duten sarbidea, Euskal Autonomia Erkidegoan.** Arartekoak sustatu eta MUGAK, SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA erakundeko ikerketa taldeak egindako ikerlana. Prestazioak jasotzeko berariazko zailtasunak topatu dituzten etorkinen ikuspegia erakusten digu azterlan honek, eta baita gizarte eragileena ere.
- Azaroaren 20an **Haurren Munduko Eguna** ospatu zela eta, Arartekoak zenbait euskarri argitaratu zituen, Arartekoaren webgunean dagoen **Eskubideen uhartera** sartzera bultzatzen dutenak. Euskarriok kartel bat eta orri-markagailu batzuk dira, eta EAEko ikastetxe guztietara bidali ziren. Web horretan umeei euren eskubideak erakusten zaizkie, baina baita euren erantzukizunak ere. Gainera, ikasturtearen hasieran ordutegi ereduak bidali ziren, ikasleek klaseen ordutegia idatzi ahal izan zezaten.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

Gaixotasun arraroei buruzko udako ikastaroa

Uztailean, EHUREN udako ikastaroen barruan, Arartekoak antolatutako ikastaro bat eman zen Donostian, *"Gaixotasun arraroak: laguntza publikoa behar duen arazo baten argi-ilunak"* izenburupean. Euskadin **300.000 bat pertsonak dute gaixotasun arraroren bat**, eta gaitz horien aurkako borrokan hainbat alderdi landu behar dira: osasun arloa, ikerketa, farmakologia, laguntza, hezkuntza, gaitz arraroak dituzten gaixoei eta haien senideei lagun egitea, eta abar.



Gizartean prebalentzia txikia duen eremua da; izan ere, mota horretako gaixotasunak sakabanatuak daude, tratamendua ere sakabanatuta dago (laborategi gehienek ez daukate hori ikertzeko interesik). Hortaz, eragindako pertsonen eta euren familiek behin eta berriro **diagnostikoa egiteko zailtasunak** salatu dituzte, bai eta diskriminazio egoerak, **estigmatizazioa** eta euren beharren gaineko arretarik eza ere.

Hauxe zen ikastaroaren helburua: pertsona horiek jasaten dituzten arazo nagusiei eta horiek arintzeko estrategia posibleei buruzko **eztabaida publikoa sortzea**. Estrategia horien artean **ikerketa biomedikoen alde egiteko** beharra nabarmentzen da, bai eta gaixotasun horiek pairatzen dituzten pertsonen **zainketarako eta laguntza integralerako** tresnak ere.



Hausnarketarako eta herritarren partaidetzarako cannabisari buruzko foroa

Arartekoak, Kriminologiaren Euskal Institutuaren lankidetzarekin, **hausnarketarako eta herritarren partaidetzarako foroa** antolatu zuen **cannabisaren**, horren erabileren, segurtasun juridikoko arazoaren eta horri lotutako politiken gainean.

Zenbait adituk cannabisaren erabilera aztertu zuten foro horretan, ikuspegi desberdinak hartuta: antropologikoa, soziologikoa, juridikoa, eta medikuntzarena eta farmaziarena. Egun indarrean dagoen politika debekatzailerean **ordezko aukerak** azaldu ziren, cannabis klub sozialen errealitatea aurkeztu zen eta beste herrialde batzuetako esperientzien berri eman zen. Bertaratu ziren, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusia eta Gipuzkoako fiskal burua, euskal epaitegietako magistratuak, Eusko Jaurlaritzako Mendekotasunen zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Osasun eta Herrizaingo Saitetako ordezkariak. Drogen kontsumoaren eragina izan duten pertsonekin lan egiten duten elkarteetako ordezkariak ere parte hartu zuten.



Herriaren defendatzaileen koordinazio jardunaldiak

Iñigo Lamarca arartekoak, erakundearen ordezkari talde batekin, *Herriaren defendatzaileen koordinazioari buruzko XXVI. jardunaldietan* parte hartu zuen. Murtziako Cartagena hirian egin ziren, “**Zaharren eskubideak**” izenburu orokorraren pean. Autonomia erkidegoetako arartekoek eta Espainiako Arartekotzak zaharren egoera aztertu zuten ikuspuntu sozioekonomikotik, gizarte eta osasun ikuspuntutik eta **Mendekotasunaren Legearen** aplikazioaren aldetik.

Jardunaldiak prestatzeko lantegietan ateratako ondorioak jardunaldietan zehar aztertu ziren eta horrela, amaieran, botere publikoei zuzendutako **gogoeta-proposamenak** osatu ziren. Arartekoek aztertu zituzten hobekuntza-proposamenen artean, azpimarratzekoa da beharrezkotzat jotzen duena botere publikoek zaharrentzako politika aktiboen gaineko informazioa emateko bide gehiago ezartzea.



Herriaren defendatzaileak

Gizarte eragileekiko lankidetzeta

Egoera ahulean dauden edo askotariko arazo sozialak dituzten pertsonen ondoan lan egiten duten gizarte eragile, elkarte eta taldeekin etengabeko harremanak ditu Arartekoak. **Topaketa horiek arazoak eta egoerak antzemateko** eta agerian jartzeko bidea ematen dute, izan ere, bestela, konturatu ere ez ginatkeelako egingo. Gizarte eragile horiek, gainera, bitartekari lanak egin ditzakete gure gizarteko sektore bereziki ahulen eta Arartekoa bezalako erakundearen artean.

Arartekoa, ildo horretan, Euskadiko **lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkarteekin** bildu zen, Ararteko erakundearen LGTB Arloan egiten ari diren lanen berri emateko. Batez ere aipagarria da Europar Batasunak sustaturiko Rainbow proiekturako egin duen ekarpena, hots, eskola esparruan homofobiaren aurka lan egiteko materialak prestatzea.

Beste arlo batzuetan lan egiten duten eragileekin ere topaketak izan ditu, hala nola **espetxeetan** edo **gaixotasun kronikoak** dituzten pertsonen ondoan dihardutenekin, eta, horrez gain, **desgaitasuna duten pertsonen** alde lan egiten duten elkarteekin bildu zen eta **EAEko garraio sistema publikoak duen irisgarritasunari buruzko diagnostikoa** izeneko txosten berezian jasotako ondorioak helarazi zizkien.



Gizarte taldeekin egindako bilera

■ Iñigo Lamarca arartekoak **Giza eskubideen babesa herri defentsarien bidez** izeneko **nazioarteko biltzarrean** parte hartu zuen Alcalá de Henaresen, honako txosten honekin: "Bereizkeriaren kontrako babesa: herri defentsariak talde ahulak babestea". Julia Hernández Arartekoaren ondokoak ere biltzarrean parte hartu zuen. "Hiria generoaren ikuspegitik eta milurtekoko helburuak" izenburuko txostena aurkeztu zuen.

■ Iñigo Lamarca, Andaluziako José Chamizo arartekoarekin batera, Sabadellen egindako **Giza eskubideei eta herritartasunari buruzko mintegian** parte hartu zuen. Herriaren defentsariak giza eskubideak sustatu behar dituztela eta lan horrek garrantzi handia duela nabarmendu zen mintegi horretan.

■ EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak antolatutako **Antonio Beristainen omenezko nazioarteko topaketan**, Arartekoak mahai-inguru batean parte hartu zuen. Hona aztergaia: "**Zer eskaintzen dio gizarteak biktimologiako jakintzari? Eta biktimologiako jakintzak gizarteari?**". Beristain irakaslea 2009an hil zen. Topaketa horretan oroitu eta zabaldu nahi izan zen hark utzitako ondare biktimologiko eta kriminologikoa.

■ Arartekoa "**Alma**" filmaren estreinaldian izan zen Bilbon. Trabak nola gainditzen diren erakusten duen istorio bat da. "Alma" filmak Mikel izeneko 34 urteko gazte santurtziar baten bizitza kontatzen du. Gaixotasun degeneratibo eta terminal baten kontra borrokatzen ari da, albo esklerosi amiotrofikoa du eta. Hala eta guztiz ere ez dio eguneroko gauza xumeekin gozatzeari utzi. "Alma", gainera, **zainketa aringarrien** ezagutzarako eta zabalkunderako gida baliagarria da. José Javier Pérezek zuzendutako film labur hori XXVI. **Goya sarietarako** hautatu zuten dokumental onenaren atalean.

■ Iñigo Lamarca arartekoak **GIZATIA** - Erromo eta Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultur Elkartearen 2011-2012 ikasturtea inauguratu zuen. GIZATIA elkarte 1995ean sortu zen, etxeko esparru pribatutik kanpo emakumeentzako lekua eskatzeko helburuarekin. **Guraso dibortziatuaren erantzukizun partekatuari buruzko jardunaldietan** ere parte hartu zuen. Euskadiko Guraso Bananduen Federazioak (**KIDETZA**) antolatu zituen jardunaldi horiek.

■ Osasun Mentalaren Elkarteak (OME) 25 urte bete dituela ospatzeko, Bilbon **Osasun mentalari eta giza eskubideei buruzko III. jardunaldiak** egin ziren. Jardunaldi horietan Arartekoa moderatzaile aritu zen "Berdinak... baina desberdinak" izenburuko mahai-inguruan, non psikiatra adituek pazienteen eskubideei buruz eztabaidatu baitzuten.

■ Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Gurasoen Elkarteak (**AMPGYL**) Bartzelonan biltzarra egin zuen eta Iñigo Lamarca arartekoak txosten bat aurkeztu zuen: "**Nork babesten ditu nerabe homosexual eta transexualen eskubideak?**". Biltzar hori topaketarako eta ahaleginak koordinatzeko gunea da **LGTBen kontrako bereizkeriarik ezaren** eta berdintasunaren arloan.

■ **26 de diciembre fundazioak LGTB nagusiei buruzko I. jardunaldia** egin zuen Madrilan, titulu orokor honen pean: **LGTB helduen kolektiboa normalizatu eta agerrarazteko erronka berriak**. Arartekoak "Zaharrentzako laguntzaren iragana, oraina eta geroa" gaiari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen. 1978ko abenduaren 26an aldatu egin zen Arriskugarritasun eta Birgaitze Sozialari buruzko Legea, erregimen frankistak 1970ean onetsia Alferren eta Gaizkileen Legearen ordez. Data horretatik hartu zuen izena **26 de diciembre fundazioak**. Lege horiexen babesean hainbat hamarkadatan homosexual eta transexualak, besteak beste, jazarpena eta kartzela jasanarazi zitzaizkien. Egun horretatik aurrera legearen aplikazioa bertan behera uzten hasi zen.



■ Iñigo Lamarca parte hartu zuen Nafarroako Burlatako udalak antolatutako ate irekiko jardunaldi batean. "**Zaurkotasunetik... finkapenera**" izan zen gaia. Valeria Rojo, feminismo eta berdintasun aukeretan aditua den Mexikoko psikologoa, eta Neus Albertos berdintasun eragilea lagun zituela, Arartekoak mahai-inguru batean parte hartu zuen eta bertan "**Emakumeen giza eskubideak finkapen politiko, legal eta moral gisa**" izan zen aztergaia.

Arartekoa Gizatziar elkartearen kide batzuekin





Arartekoa Loiolako topaketan

- Donostiako elizbarrutiko **Ongintza eta Gizarte Pastoraltzak** Loiolan egin zen topaketa batera gonbidatu zuen Arartekoa. Hona aztergaia: humanizazioaren erronkak krisi ekonomikoaren eta gure gizarteko balio krisiaren esparruan.



Bizkaiko Jaurerriko Abokatuaren Elkargoarekin hitzarmena sinatzea

- Urtarrilean, Arartekoaren ondokoak, Julia Hernándezek, bere sarrerako ikasgaia eman zuen **Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte**an. "Haurren prostituzioaren bezeroak" izenburupean aritu zen. Atzerriko herrialdeetan haurren prostituzioaren bezero izateagatik hemengo herritarrak zigortzeko dauden aukerak eta tresna juridikoak aztertu zituen, bai nazioartekoak bai nazionalak. Bilboko **El Sitio elkarte**an ere gai berari buruzko hitzaldia eman zuen.

- Gorren Elkartearen Euskal Federazioak (**Euskal Gorrak**) antolatuta, Iñigo Lamarca arartekoak hitzaldia eman zuen Bilbon, **desgaitasuna duten pertsonen eskubideen** inguruko gaiiez. Gainera, Gasteizen amaiera eman zien ADELPRISE elkarteak antolatutako **Linfedemari buruzko III. biltzar-jardunaldiei** ("**XXI. mendeko linfologia**"). Desgaitasun iraunkorren kausa nagusietatik linfedema bigarrena da.

- Arartekoak eta **Bizkaiko Jaurerriko Abokatuaren Elkargoak** hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horretan **lankidetz**a esparrua ezarri zen Arartekoaren erakundeko langileei prestakuntza emateko eta beste zenbait jardueratarako, tartean informazio trukea.

- Arartekoaren ondokoak, Julia Hernándezek, "**Gizakien salerosketa Iberoamerikan**" gaiari buruzko jardunaldietan parte hartu zuen Puerto Ricon. Puerto Ricoko ordezkari ganberak bularreko minbiziazaren aurkako borroka babesteko antolatutako ekitaldietan ere parte hartu zuen Arartekoaren ondokoak, baita FIOko Emakume Sarearen hainbat bileratan ere.

- Arartekoaren ondokoa **Genero indarkeria desberdintasun funtzionala duten pertsonetan** izeneko jardunaldietan izan zen, Gasteizen. Antolatzailea Zuzenak Fundazioa izan zen. Jardunaldi horien bitartez helburu hauek lortu nahi ziren: genero indarkeriaren berri ematea desberdintasun funtzionala duten pertsonen, prestakuntza ematea profesionalen, eta genero berdintasuna sustatzea.

- Clara Campoamor elkarteak antolatutako **Genero indarkeriaren aurkako Barakaldoko IV. jardunaldien** barruan, Arartekoaren ondokoak hitzaldia eman zuen: "Adingabeek gurasoei-eta tratatu txarrak ematea". Bilbon **Genero indarkeria eta komunikabideak** jardunaldietan parte hartu zuen. Komunikabideek genero indarkeriaren mota guztietako adierazpenen ematen dieten tratamendua aztertu zen bertan.

Julia Hernández El Sitioko presidenteorde Alfredo Juezekin





Arartekoa Langraiz Okako Badaia institutuan

GASTEIZTXO PROGRAMARAKO LANKIDETZA

Beste urte batez, Ararteko erakundea Gasteizko Hezkuntzako Udal Sailarekin elkarlanean aritu da *Gasteiztxo albistegia* egiten. Arabako hiriburuko hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzeko eta erakundearen jarduerarekin lotutako datuak eta informazioa jasotzeko irratia edo telebistako saio bat edo egunkari bat prestatzeko.

IKASLEEN BISITAK ETA IKASTETXEETAKO SOLASALDIAK

Arartekoaren ekintza ildoetako batean, haur eta nerabeen eskubideen berri zabalzen da eta, halaber, **giza eskubide guztien errespetuaren kultura** hedatzen da haur eta nerabeen artean. Eskubideen kultura zabaltzea ahalbidetzen duten jardueretan parte hartzen dute bai Arartekoak zein adingabeen beharrezanekin zerikusia duten arloetan lan egiten duten erakundeko pertsona guztiak.

Garrantzi eta zailtasun handiko eginkizuna da haurren eta nerabeen artean eskubideetan oinarritutako kultura hedatzea. Gure erkidegoan **300.000 pertsona** baino gehiago dira eta askotariko egoeretan daude. Arartekoak, ahal duen neurrian, hainbat bide erabili izan ditu, horietako gehienak hezkuntza sistemara zuzenduak.

Jarduera horien esparruan, Arartekoa **Langraiz Okako Badaia institutuko** DBHko ikasleekin bildu zen. Ikasleok hainbat galdera egin zizkieten erakundearen jarduerari eta giza eskubideei buruz. Arartekoak *Adingabeei balioak transmititzea* izenburuko txostenean jasotako kontu batzuk aipatu zizkien: balio eta kontrabalioren zein eskala erabiltzen duten, teknologia berrien erabilera, zertan ematen duten aisialdia, edo zenbait desberdintasun noraino onartzen dituzten. Gazteek, gainera, askotariko gaiak atera zituzten: droga kontsumoa, arrazakeria, homosexualitatea etab.

Goi mailako Lanbide Heziketako **Elorrieta - Erreka Mari ikastetxeko** ikasle talde bat ere hartu zuen. Ikastetxe horrek Zuzenbidearen hastapenak eta Administrazio Publikoa irakasgaietako jardura osagarri moduan antolatu zuen bisita Arartekoaren erakundera.

Elorrieta-Erreka Mari ikastetxeko ikasleak



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independentea** da.
- **Dohain eskaintzen** den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOA?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGİN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoa azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4,
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu

